HERNANI

2021

HERNANI 2021

HERNANI URTEKARIA

Udal Artxibo Zerbitzua

Hernaniko Udala

euskara ari du

Diseinu eta maketazioa: GRAFIKOKI
Lege-gordailua: SS-403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da.
Las opiniones expresadas en los artículos son responsabilidad exclusiva de sus autores.

Hernani 2021

Hernani urtekaria (2021)

Udal Artxibo Zerbitzua

27. urtekaria

Azala: Txuso Gomez.

AURKIBIDEA
ÍNDICE

1. **Putzuzarreko trikuharriaren ikerketa arkeologikoa.**
   Manu Zeberio - Jesus Tapia (ARANZADI Zientzia Elkartea, Historiaurreko Arkeologia Saila). 09
2. **Mendiriz Mendi, 75. urteurrenera heldu gara!.**
   Mendiriz Mendi Elkartea. 13
3. **Duela 46 urteko kontuekin bueltan... (Zikuñagako ermita).**
   José Luis Aperribay Madinabeitia. 18
4. **Reconstrucción de la Ermita de Zikuñaga.**
   Xabi Arraztio Ortiz (arquitecto) – Eneko Uranga (arquitecto). 21
5. **Igeriketaren ariak Hernanin ez du etenik.**
   Iñigo Goñi Iradi. 27
6. **Santa Barbarako putzua: iraganean murgildu etorkizuna bilatzeko.**
   Iñaki Sanz - Azkue. 31
7. **Ruth Martin Apezetxea gogoan.** 35
8. **Kulturarteko Plaza Feministak ateak zabaldu ditu!** 41
9. **Hernani, crónica 2019ko kronika.** 45
10. **Hernani, crónica 2020ko kronika.** 56

PUTZUZARREKO TRIKUHARRIAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOA

M. Ceberio - J. Tapia
(ARANZADI Zientzia Elkartea, Historiaurreko Arkeologia Saila)

Monumentuaren hasierako egoera.

Monumentuaren aurkikuntza eta ezaugarriak

2014ko apirilean, Lontxo Ugartek Akola izeneko baserriaren ondoan trikuharri bat zegoela esan zuen. Luis Millanen abisua jaso ondoren, gerturatu ginen, eta egituraren ezaugarriak ikusita megalito berri bat zela pentsatu genuen, Akolako Lepua II-ren antza zeukana. Putzuzarren aurkitzen den egiturak ezaugarri berezi batzuk zituen, harri txikiz egindako pasabide moduko bat zeukala zirudien. Hala eta guztiz ere, identifikazio hori eta monumentuaren ezaugarriak baieztatu behar ziren, egitura ondo babesteko. Horregatik 2018an, 2010etik gure zuzendaritzapean egiten den Txoritokieta eta Igoin-Akola Estazio Megalitikoen ikerketa proiektuaren barruan, proposamen bat aurkeztu genuen egituraren ezaugarriak ezagutzeko.

L. Ugartek aurkitutako egitura hau diametroan 10 m eta altueran 0, 40 m-ko tumulua duen trikuharri bat da. Hegoaldeko erdia suntsituta dago harriak erauziak izan direlako. Erdialdean, hil-ganbararen ipar-mendebaldeko erpina osatzen duten zenbait harlauza ikus daitezke. Iparraldeko harlauzak 2,5

m-ko luzera, 0,8 m-ko garaiera eta 0,4 m-ko zabalera dauka, eta 120º- tara norabideratua dago. Mendebaldekoak berriz, aurrekoarekin angelu bat osatzen du, eta, ikus daitekeenaren arabera, 0,55 metro ditu luzeran, 0,25 m garaieran eta 0,1 m zabaleran. Badira, gainera, tamaina txikiagoko harriak, ipar harlauzaren ekialderantz lerrokatzen direnak, eta haren jarraipena izan daitezkeenak. Egituraren eraikuntzan erabilitako materialak bertako hareharriak dira.

Monumentuaren ikerketa arkeologikoa

Esan dugun bezala, gure proiektuak trikuharriaren ezaugarriak zehaztea zuen helburu eta ikerketa hori aurrera eramateko Hernaniko Udalak laguntza ekonomiko bat ematea adostu zuen.

Nahiz eta, gure ustez, trikuharriaren identifikazioa positiboa izan, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek ez zuten hain argi ikusten eta aurreikusitako indusketa arkeologikoa egin baino lehen egituraren jatorria ziurtatu behar zela agindu zuten.

Horregatik, 2018ko lanetan egitura osoko gainazala garbitu genuen trikuharriaren oinplanoa bere zabalera osoan ikusteko. Lan horri esker tumulua uste genuena baino zabalagoa zela ikusi genuen, 10 metroko zabalera baino gehiago baitauka. Hain zuzen ere, hego-ekialdean gainazala kentzean, egitura suntsituta egotea espero genuen aldean, tumulua zabaltzen dela ikusi genuen.

2018an egindako garbiketa lanak.

Proiektuaren metodologia jarraituz, indusitako lur guztiak bahetu genituen eta, lan hauek egitean, suharrizko bi pieza landuta aurkitu genituen: printza bat eta xafla zati bat.

Lortutako emaitzak ikusita, trikuharri bat zela argi gelditu zen eta aurreikusitako gainerako lanekin (zundaketa bat ustezko hegoaldeko harlauza bilatzeko) ez jarraitzea erabaki genuen. Proiektuaren lehenengo fasearen helburua monumentu megalitikoa baieztatzea zenez, behin hori lortuta, lanak etetea erabaki genuen, monumentua ikertzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko baimena lortzeko asmoz.

2019an, trikuharria ikertzeko baimena jaso ondoren, egitura osoa garbitu genuen, eta egituraren hego-ekialdeko zatia suntsituta zegoenez, jatorrizko tumuluaren aztarnen bila industu genuen, goiko geruza nahasiak kentzen.

Lan honekin batera hil-ganbara industu genuen, maila desberdinak jaisten eta erregistratzen, ustezko lurzoru baten aztarnak topatu arte. Nahiz eta deseginda egon, ustezko lurzoru hori osatzen zuten harlauz batzuk aurkitu genituen.

Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: 1. azala.

Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: 2. azala.

Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: amaiera.

2020an egindako lanetan, eta monumentuaren ikerketa bukatzeko asmoz, 0,50 x 0, 90 metroko luzera eta 0,30 metroko sakonera duen zundaketa bat egin genuen hil-ganbaran, aipatutako lurzoru horren azpian bertako lur naturala kokatzen dela baieztatzen.

Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: lur naturala.

Baina hil-ganbararen forma da guk identifikatu dugun gauza interesgarriena. Indusketa egin baino lehen, iparraldeko harlauza handia ekialderantz luzatzen zela ikusten zen (tamaina txikiko harriak harlauzaren ekialderantz lerrokatuak), eta lanak egin ondoren 3 metro baino gehiagoko luzera daukan galeria-hilobi bat dela argi utzi dugu.

Hil-ganbararen irudi orokorra.

Lan arkeologikoa bukatu ondoren, monumentuaren topografia egin zen eta indusitako hilobia berreskuratu zen.

Monumentuaren irudi orokorra.

Trikuharria suntsitua egon arren, indusketa lanak egiterakoan material arkeologiko interesgarriak aurkitu ditugu: suharrizko printza bat eta xafla baten zati bat 2018an, eta 2019an gezi punta bat, bi xafla eta beste baten zati bat.

Azaldutako gezi punta.

Putzuzar eta Igoin-Akolako Estazio Megalitikoa

Igoin mendian kokatzen den estazio megalitikoa 17 monumentuk osatzen dute gaur egun eta Donostiako, Errenteriako eta Hernaniko udalerrietan kokatzen dira. Monumentuen izenak honako hauek dira: Akolako Lepua I-II, Arritxieta, Bistarri, Igoingo Lepua I-II, Landarbaso I-VI, Langagorri, Putzuzar eta Sagastietako Lepua I-III (1).

Estazio megalitikoa Monumentu Multzo izendapenaz Kultura Ondasun gisa deklaratu zen ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuan (EHAA: 2003ko uztailaren 8a, 133. zenbakia). Dekretu horretan zehazten dira estazioa osatzen duten elementuak eta haien babes-erregimena.

Putzuzarreko trikuharriak multzo honetan kokatzen diren beste monumentu batzuen antzeko ezaugarri batzuk ditu, zehazki, Akolako Lepua izeneko egiturarenak. Akolako Lepua I industerakoan, 1950an, harlauzatxo mehez osaturiko maila bat identifikatu zuten hil-ganbaren barruan (2), guk indusitako

1.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA: Gipuzkoako monumentu megalitikoen eta aztarnategien bilatzailea. http://www.aranzadi.eus/carta-megalitica-resultados?terminobusqueda&estacion%5B0%5D=Igoin-Akola&terminomunicipal&searchsubmit&pagina=1&lang=eu

2.- ATAURI, T.; ELOSEGUI, J.; LABORDE, M.: "Exploración de tres dólmenes de la estación dolménica de Igoin-Akola (Guipúzcoa)". Munibe 3, 1951, p. 13.

monumentuan ikusitako aztarnak bezala. Beste alde batetik, Akolako Lepua IIan Putzuzarreko hil-ganbararen ezaugarri antzekoak ikusten dira, hau da: ipar-ekialdeko harlauz handi bat, barrurantz kulunkatua, eta mendebaldeko harlauz txiki bat, biek hil-ganbaren ipar-mendebaldeko erpina osatzen dute. Hori bai, azken monumentu honek ez dirudi Putzuzarren aurkitutako galeria-hilobia izan duenik. Putzuzar kasu bakarra da Igoin-Akolan, bai bere arkitekturagatik, bai bere kokapenagatik, toki ez oso ikusgarri batean baitago. Agian horretarako erabiltzen ziren tokirik hoberenak okupatuta zeudelako jada edo ezezaguna egiten zaigun beste arrazoi batengatik.

Beste alde batetik, ezagunak izan arren, galeria hilobiak ez dira ohikoak Gipuzkoan, Jentillarrikoa da kasu ezagunena, 6 metro inguruko luzera duen hil-ganbara batekin (1).

Emaitzak eta azken oharrak

Putzuzarren aurkitutako monumentuak Gipuzkoan ezagunak baina ez-ohikoak diren arkitektura eta kokapena dauzka; maldan behera dagoen eta inguruko erliebean nabarmentzen ez den galeria-hilobi bat da.

Igoin-Akolako multzoa trikuharrien arteko artikulazio espaziala ikertzeko aukera bikaina da. Eremu honetan hainbeste trikuharri ezarri izanak nolabaiteko antolakuntza espazial eta kronologikoa jarraitu behar izan du eta hipotesi berriak planteatzeko aukerak zabaltzen zaizkigu.

Igoin-Akolan, trikuharriak eraiki eta erabili ziren bitartean giza okupaziorik bazen, orduan nekropoliaren eta bizilekuen arteko artikulazioa aldatu egingo zen hildakoen espazioa zabaltzen zenean bizilekuak ingurutik baztertuz. Dena den, mendi honetan tarte zabala gelditzen zaigu oraindik aztertu gabe, eta antolaketaren arrazoia zein izan den baieztatu behar da.

1.- APELLANIZ, J. M.: Corpus de materiales de las culturas prehistóricas con cerámica de la población de cavernas del País Vasco Meridional. Munibe, Supl. 1, 1973, pp. 249-250.

Antolaketa espazialari dagokionez, inguru osoa miatzea komenigarria izango litzateke, orain arte ikusitako banaketaren arrazoia zein den argitu arte.

Aldi berean, trikuharrien datak lortu behar dira -eta aukerarik izanez gero, aire zabaleko okupazioenak ere- analisi sakon bat egin ahal izateko.

Bukatzeko, trikuharriak multzoetan aurkitzen direnez, eta beren erabilpen luzea kontuan hartuta, nekropoli hauen esanahi historikoaz gogoeta bat egin behar da. Hain zuzen ere, denbora luzez erabili diren hilobi-kolektiboak izanik, leku honetan hainbeste monumentu egoteak hiru hipotesi planteatzen ditu:

1. Gizatalde bakarrak erabiltzen bazuen nekropolia, talde honen populazioa uste baino handiagoa dela. Taldearen beharren arabera, trikuharri berriak eraikiko lirateke denboran zehar, eta hauen artean antolaketa kronologikoa egon behar du.
2. Hileta-eremu berdina gizatalde ezberdinek erabiltzen dutela. Espazio partekatua erabiltzeko arau bat egon behar da, eta monumentuak garaikideak izan behar dira.
3. Monumentuen erabilpena ez zela izan uste dugun bezain luzea (denboran) edo zabala (hobiratu gutxiago bakoitzean). Kasu honetan, trikuharrien ostilamenduetan nabarmendu beharko lirateke ezberdintasun tipologikoak eta kronologikoak.

Momentuz, ez dugu ez monumentuen dataziorik, ezta hilobien ostilamendurik ere, hipotesi hauek egiaztatzeko.

Horregatik, gure ikerketak jarraitzeko asmoa daukagu.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei: Alfredo Moraza, Iñaki San, Izaro Quevedo, Txuma Costas eta Ereñotzu eta Hernaniko jendea, besteak beste.

MENDIRIZ MENDI,
75. URTEURRENERA HELDU GARA!

Mendiriz Mendi Elkartea

Antonio Yeregi, Jose Luis Madina, Damaso Uria, Antonio Agirresarobe, Marcelo Ruiz, Julia Larrañaga eta Ramon Ruiz, *Aitzgorrin*, 1946ko uztailaren 14an.

Nork esango luke! 1946. urtean eginiko lehen urratsek 2021. urtera arte eraman gaituzte. Zaila izan daiteke konprenitzea, eta inor ez dugu jarriko estutasun horretan. Zaila izan daiteke 75 urteotan egin dugunaz jabetzea, eta inor ez dugu jarriko estutasun horretan. Eta guri, Mendiriz Mendikoei, galdetu izan baligukete? Bada, erantzuna ez dugu. Agian, gailur batean eskegita egon daiteke, edo ibar eder baten ezkutua, edo, agian, inork zapaltzen ez duen bidezidor xume batean. Nork daki!

Bai, Mendiriz Mendik 75 urte bete ditu. Eta, konprenitu ala ez, jabetu ala ez; argi eta garbi daukagun gauza bakarra da ibilbide honetan izan dugun helburu bakarra gure herrian, Hernanin, mendizaletasuna bultzatzea izan dela. Gainera, alderdi guztietatik begiratuta. Mendizaletasunak dituen printzipioei oinarri-oinarritik heldu dizkiegu. Eta, oso xume bada ere, 75 urteko ibilbide horretan txertatzen saiatu gara. Eta ez da gutxi!

Horregatik diogu, 1946. urteko ekainean, behar bada jakin gabe, elkarte honetako hazia erein zuten haien ahotsa jarraitzen dugu izaten. Edo, behintzat, horretan ahalegintzen ari gara. Urteak joan ahala, hastapen haietan lan egin zutenen ilusioa eta erantzukizuna beste batzuk hartu dituzte, tinko eta etenik gabe lan eginez, Mendiriz Mendiren oinarriak eta ideak finkatzea lortu arte.

Borondatezko lana egiten dugu; hori badakizue. Gizarte honetan itzaltzen ari den auzolanaren bandera altxatzen jarduten dugu; lau haizetera hedatzen. Merezi duelako, horretan sinetsi egiten dugulako eta ohorezko tokia behar duelako. Erantzukizun horretan erabat murgilduta, inolako ordainik eskatu gabe, gure elkartetik makina bat lagun igaro dira. Dagoeneko, batzuk ez daude gure artean; beste batzuek, aldiz, beste bide batzuk hartu dituzte. Elkarteko kide izan diren eta diren guztiek ohorezko lekua behar dute izan. Haien lanak Mendiriz Mendiren ametsa egia bihurtu baitute. Pasio komun batek bultzatuta zuen eta gure txokoa, hots, elkartea, guztion ondare bihurtu dugu. Horiei guztiei gure esker beroenak. Baita ere, aurrerantzean Mendiriz Mendi garatu eta aberasteko lan egiteko prest zaudeten guztiei. Gizakien obra guztiak bezala, gure elkartea ere gutariko bakoitzak bizi ematen dion neurrian bakarrik izango delako errealitate, eta ez amets.

75. urteurrenera heldu gara, eta jakin ezazue prest gaudela bidean jarraitzeko. Ez gara iragarleak, baina "Hernani" izeneko aldizkari honetan bertan, 50 urte bete genituenean, Mendiriz Mendiren historiaren ateak zabaldu eta honako izenburuarekin aurkeztu ginen: *"50 urte? Bai, eta askoz ere gehiago..."*. Iragarpen hori, agian, ume baten xalotasunarekin egin genuen. Izan daiteke, baina, tira, asmatu genuen.

75 urte bete ditugu, baina, zoritxarrez, Covid-19ak gure gizartean sortutako pandemiak eragotzi egin digu urte honetan guztian zehar antolatutako ospakizuna behar bezala betetzen. Batzuk ezin izan ditugu aurrera eraman; beste, batzuk, berriz, bai. Baina inportanteena da urteurren berezi hau betiko izango dugula geure bihotzetan gordeta. Inork ez digu kenduko ibilbide honetan lan egin eta ardura

izan dutenen eskuzabaltasunaz gozatzeko aukera. Eta hori guztia Mendiriz Mendira hurbildu diren guztiekin partekatu nahi izan dugu.

Horregatik geure hastapenetara eraman nahi zaituztegu. Ez gara luzatu; ez, 50 urte bete genituenean aldizkari honetan luze eta zabal hitz egin baikenizuen gure historiari buruz. Baina egin ditugun hurrengo 25 urteak testuinguruan jartzeko, bi zertzelada baino ez ditugu aipatuko.

Hastapenen bidean

Aurreratu dizuegu 1946. urteko ekainean sortu ginela. Ez dakigu zein den eguna, baina inoiz ahaztuko ez dugun data seinalatua dugu. Urte horretan Mendiriz Mendiri jaiotzeko garaia iritsi zitzaion, nahiz eta urte haietan CD Hernaniren adar bat izan. Urteek aurrera joan ahala, elkarteak nolabaiteko onespena behar zuen; hain zuzen ere, Espainiako Mendi Federazioarena. Federazio horretan onartua izatearena, alegia.

Eta horretarako, Juan Otamendi eta Antonio Agirresarobe elkartekideek 3.046 metroko garaiera duen Argualas mendia igo zuten. Hain zuzen ere, 1954. urteko abuztuaren lehendabiziko egunean. Horixe zen federazio espainiarrak eskatzen zuena elkarte gisa onartzeko; hots, *hirumilako* bat igotzea. Era horretan, Mendiriz Mendi elkarteak mendi federazio horren kide berriaren txartela jaso zuen.

Elkartearen lehenengo boletina, berriz, 1959. urtean jaio zen. Orrialdetxo horiek oso gai interesgarriak argitaratzen zituzten. Nahiz eta gutxi iraun zuen, 1984. urtean, elkartekide talde batek bultzatuta "Ilargiaren itzalpean" aldizkariak lekukoa hartu zion.

Bestalde, 1964.ean autonomia lortu bagenuen ere, 1986. urtean CD Hernanirekin lotura guztiak erabat moztea erabaki zen. Beraz, urte hartan Mendiriz Mendi del CD Hernani izatetik, Mendiriz Mendi Elkartea izatera pasa zen.

Egiten ari garen ibilbidean elkarteak egoitza ezberdinak izan ditu, eta, egun, 1995.ean Udalak utzitako bulego ederra inauguratu genuen. Ez zen izan elkarteak izan zuen aldaketa bakarra, besteak beste, egungo helburuak ez baitira hasierako urteetakoak bezalakoak. Hastapenetan, ekintza nagusia mendizaletasuna zuen, eta horrekin lotuta irteerak mendi batera. Denbora luzez irteera horiek erantzun ona izan zuten, baina 1970eko hamarraldian autobusak betetzeko arazoak izan genituen. Irtenbide gisa, irteerak eskualde mailan antolatzen hasi ginen.

Aipatzekoa da ere, 1990etik aurrera egutegi propioa ateratzen hasi ginela: helduentzat zein gaztetxoentzat bideratuta. Zuhaitz Egunak edo Mugarri Festak ere, leku berezia izan zuten; guk geuk antolatuta, gainera. Mendizaleen artean izan ziren aldaketak medio, beste erabaki bat hartu genuen: mendirako zein eskirako tresneria alokatu. Horietako mendizale batzuk goi mailako jarduerak egin zituzten. Eta, zalantzarik gabe, entzutetsuena Martin Zabaletarena dugu. Gure elkartekideak munduko mendi garaiena, Everest (8.848 m), igotzen lehen euskal mendizalea izan zen. Balentria hori 1980ko maiatzaren 14an erdietsi zuen.

Mendiriz Mendiren mende erdiarekin batera, ekitaldiz betetako urtea antolatu genuen. 50 mendi igo genituen: 49 Euskal Herriko tontorrak eta guretzat esanahi berezia duen Argualas (Huesca). Horrez gain, 50. urteurreneko kamiseta atera genuen, eta ezin dugu ahantzi Santa Barbarara eginiko erromeria eta egun pasa.

25 urte aurretik

Arestian aipatu dizuegu, elkartearen baitan zein mendizaleen artean hainbat aldaketa bizi izan ditugula. 1985. urtera arte, adibidez, irteerak herri batean hasten genuen. Gailurra egin eta gero, herri berdinera jaisten ginen. Baina data horretatik aurrera, tontorra egin, bai, baina "helmuga" beste herri batean edo leku batean zehazten zen.

Mugarri Festari dagokionez, hasieran, urtero, ibilbide guztiak egiten genituen. Ondoren, bi ibilbide ezberdin antolatzen hasi ginen: bat gaztetxoentzat eta bestea helduentzat. Gogoratu behar dugu gaztetxoen irteetara helduak joan daitezkeela. Bide batez aipatu behar dugu murrizketa horrek baduela zio bat: gero eta mendizale gutxiago batzen zen.

1994ko Mugarri Festa, irailaren 24an, Antxistan.

Etxerako itzuleran auto istripu baten ondorioz hil ziren Aitor Garcia, Felix Armendariz eta Arantxa Zuza *Pitxi*. Hirurak, argazkian, 1993ko urriaren 17an, Soilan.

2014ko otsailaren 16an eginiko *Hernani ezagutuz* irteera, Oberanera.

Gaztetxoekin irteerak 1991. urtez geroztik egin dira: 1999ko urriaren 30-31an, Artikutzara; 2011ko otsailaren 13an, Bianditzera.

Herriko ibilbideek badute elkartean oinarri berezi bat. Jarduera hau antolatzen hasi ginenetik soilik irteera bat egiten da. Lehen urteetan, adibidez, bisita gidatu modura egiten genuen. Hain zuzen ere, Historia lizentziatua den Txuso Gomezen eta Biologian lizentziatua den Iñaki Sanz-Azkueren eskutik. Gida lana hauek bertan behera geratu ziren, eta besterik gabe irteera soil bat egiten hasi ginen. Ez genuke aipatu nahi egin, baina horietako irteera batean jazoera tamalgarri bat bizi izan genuen. Usoko Biran izan zen. Akolatxa inguruan, bihotzekoak jota, Pako Seco zendu zitzaigun.

Gaztetxoen irteerak zutabe izan dira elkartearen filosofian. Esaldi askok dioten modura, haiek gabe ez dugu etorkizunik. 1991. urtez geroztik, asteburuko irteera bat egin da. Bernedon hasi ginen. Zorigaiztozko ezbeharra jaso genuen. 1993.ean Bernedotik itzultzen ari ginela auto batek istripua izan zuen, eta etxeko hiru kide hil ziren: Aitor Garcia gaztetxoa eta Arantxa Zuza eta Felix Armendariz helduak. Ezbehar horren ondoren, irteerak autobusez egiten ditugu.

2008ko otsailaren 16ko Zuhaitz eguna. 2013ko otsailaren 3ko eski ikastaroa, Pont d`Espagnen. Eta 2015 maiatzaren 24ko eskalada ikastaroa.

Hurrengo urteetan, berriz, Artikutzara joaten hasi ginen. Eta 1990.ean, herriko ikastetxeekin elkarlanean Eskola Kirola egitasmoaren barruan mendizaletasuna lantzen hasi ginen.

Aldaketen artean aipatzekoa da ere Zuhaitz Egunak izan dituena. Duela gutxira arte, gaztetxoekin larunbatean ospatzen zen, eta igandean helduekin. Baina, egun, Udalak horrela erabakita, denok elkarrekin egiten dugu.

Bestalde, eskalada ikastaroak hasierako moduan egiten ditugu, eta eskia aipatzen badugu: ikastaroa eta irteera bana. Eta berrikuntzen artean elkartearen web gunea dugu:

www.mendirizmendi.com

Eta Mendizale Asteari buruz, zer esan genezake? Bada, gutxi gorabehera 90eko hamarraldiaren hasieratik aurrera bazkide talde batek ekimen horren ardura hartu zuela. Zinez, eskertzekoa da, zuzendaritza taldeari "zama" ederra kendu diolako. Bide batez, bazkideei zuzenduta, aste horretan urte batzuk badira GPSaren ikastaroak eskaintzen direla. Irauten dituen bost egun horietan proiekzioek zein argazki lehiaketak protagonismo osoa izan dute. Berrikuntzen artean bada bat azpimarratzekoa dena: "herritarren" izena hartu duen proiekzioa.

Elkartearen barruan izan ditugun eztabaiden artean merezi du hurrengoa aipatzeak. Urteen poderioz mendizale federazioek bultzatuta ibilbide asko margotu edo markatu dira. Guk, bederen, begi onez

Mendiriz Mendiko kideek elkarteko mendi kuttuna berriro igo zituzten 2021ko uztailaren 24-25ean: Argualas mendia, Panticosa.

ikusi eta onartu ditugu. Onartu soilik ez, erabili ere bai. Eta, adibidez, Mendiriz Mendikook GR11 eta Arrainaren eta Ardoaren ibilbideak (GR38) egin ditugu.

Mendia egiteko lur eremuak ere zabaldu ditugu. Garai batean Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta, gehienez, Lapurdira joaten ginen. Gehienak, egun bateko irteerak izaten ziren. Baina, egun, Pirinioetako bi isurialdeak, Errioxa, Soria, Burgos, Leon, Kantabria, Palentzia, Ávila eta beste eskualde batzuk bisitatzen ditugu.

Irakurtzen den bezala, era askotako mendi irteerak egiten ditugu. Eta hauetan guztietan, bazkideek egundoko lan egin dute. 1992. urtean, Inaxio Sanzek elkarteko lehendakaritza utzi zuenean, batzar batean honakoa proposatu zuen: irteeren ardura zuzendaritzak hartu beharrean, bazkideek hartzea. Eta, hain zuzen ere, urte horretatik aurrera bazkideak dira lema hartu dutenak. Horixe espero genuen, eta txalotzekoa da bazkideek egiten duten lan hori; ondo erantzunez eta makina bat irteera prestatuz.

Hasiera-hasieratik garbi genuen irteera guztietan segurtasuna bermatu behar zela. Horretarako, ibilbidearen aurrean eta atzean doazenek walkie bana eramaten dute, bidegurutzetan taldea asko luzatzen bada, itxaroten egiten da den-denak elkartu arte. Edo arduradun bat puntu horretan gelditzen da mendizaleari nondik joan behar duen argitzeko.

Elkarteko irteerei amaiera emateko, lagun handi bat gogora ekarri nahi dugu. Martin Ansa da, hots, azken 31 urteotan egin ditugun irteeretan autobus gidaria izan duguna. Duela gutxi joan zitzaigun. Soilik goraipatu behar dugu Martinen gizatasuna. Mendi jarduera horretatik oso nekatuta iristen ginenean, ahal zuen neurrian beti laguntzeko prest zegoen.

Iritsi zaigu, beraz, Mendiriz Mendiren 75. urteurrena. Eta elkarteak dituen kideei dagokionez, baieztatu behar dugu sendo eta indartsu iritsi dela. Aurten, 576 federatu eta bazkide gara. Soilik bazkideak direnak: 102. Eta guztiok urteurren berezi hau behar bezala ospatzeko egitarau oparoa antolatu dugu. Antolatu, bai, baina pandemiak gure aurrean saihestu ezin den murru bat jarri digu. Horrekin esan nahi dugu ekitaldi asko bertan behera utzi behar izan ditugula. Bederen, joan den uztailean, gure mendi kuttuna Argualas berriro igo genuen. Urrian ere, gaztetxoekin Finalisten Eguna ospatzeko aukera izan zen.

Amaiera ordua heldu zaigu, eta Mendiriz Mendi Elkartetik azken 75 urteotan zuzendaritzan egon diren lagun guztiak gogora ekarri nahi ditugu. Goraipatzeko da, adibidez, *Txe* Zuzak hartutako ardura; azken 25 urtetik 23tan presidente izan dugu. MILA ESKER, Txe!

Bagoaz, baina ez dugu adiorik esango. Mendiriz Mendik 75 bete berri ditu, baina elkartean argi eta garbi dugu eginiko ibilbideak ez duela etenik izango. Izan ere, gure betebeharra mendizaletasuna bultzatzea da. Elkartea sortu genuen, baina ez da soilik gurea, hernaniar guztiena ere. Mendiriz Mendi zuen etxea da, eta beti ateak zabalik izango dituzue.

DUELA 46 URTEKO KONTUEKIN BUELTAN...
(ZIKUÑAGAKO ERMITA)

Jose Luis Aperribai Madinabeitia
(bikariokidea)

Hala da, bai. Industrializazioa indartzen eta hedatzen ari zen garai haietan. Eta gure Hernani honetan ere bai. Urumea ibaian gora. Antzina burdinolak kokatu ziren ibaiertzean. Hirurogeitahamarreko hamarkadan, burdingintzarekin batera, papergintza suspertuz joan zen gure artean.

Hain zuzen, 1974an gertatu zen Zikuñagako ermitaren auzian zerikusi handia izango zuen akordio komertziala: ermitaren lur-zoruaren salerosketa Donostiako Gotzaindegiaren eta Papelera Guipuzcoana de Zicuñagaren artean. Handik urte betera Andolako kokagunean berreraikitzeko konpromisoarekin. Liskar zibil eta judizialek, alde batetik, eta 5 urte geroago (1979) Zikuñagako Andre Mariaren irudia lapurtua eta desagerrarazi izateak, are gehiago su piztu zituen orduko gizarte eragileen arteko sumindura eta etsipena.

Eta, horrela, urteak joan urteak etorri, aldian aldiko salaketak eta erreibindikapenak eginagatik, hauts artean eta isilpean geratzen joan da Zikuñagako Andre Mariaren irudia. XII-XIII. mendekoa omen zena, eta 1948. urtera trukatua. Andre Mariarenganako kultuaren aipurik zaharrena 1529.go idatzi batean jasoa dator. Kontua da, "Agur Jesusen Ama" kantatuz agurtu zutela ermitan Andre Maria azken aldiz 1985an. Eta handik 2 urtera eraitsi zuten ermitaren eraikuntza.

Zergatik orain bai?

20 urte daramatzat herri honetan herritar eta apaiz gisa. San Joan Bataiatzailea parrokia elizako ate nagusitik sartuta, korurako bidea hartzen baduzu, hor ikusiko zenuen bataioko pontearen gain, Zikuñagako Andre Mariaren erreplika bat, ermitako seroraren esanetan eta argazkietan oinarri hartuz egindakoa.

Jada 1954. urtetik, San Joan Bataiatzailearekin batean, Hernaniko zaindari izendatua izan zenez gero, bazegokiola lehen mailako kokaleku bat egokitzea gure parrokian, eta eguneroko mezatara biltzeko kaperatxo bat eraikitzeko ari ginelarik, iritzi genion egoki zela Zikuñagako Ama kapera izendatzea, 400 urte aurretik bukatu gabe geratu zena burutuz eta korupeko imajina bertara aldatuz.

Kapera berria estreinatu eta berehala, hor non datozkidan, desagerrarazitako irudia eta ermita berreraikitzeko talde bultzagilea esanez: "Ongi da kapera berria egin izana, baina horrek ez du beste erronka baztertzen, baizik eta susper dezake ermitaren berreraikuntza".

Jakinarazi zitzaigun, gainera, ermita berreraikitzeko diru-fondo bat zegoela, horretara eta ez beste ezertara destinatua.
Miatu genuen ermita eraikitzeko orubea non eta nolako baldintzatan zegoen. Eta, ondorioztatu zen, Andola inguruko lur-zoruetan ez zegoela inondik ere proiektua burutzerik, malda malkartsu hartan irisgarritasuna lortzeko gastuek bakarrik xahutuko zutelako esku artean genuen dirua.

Horrela, Orkolaga baserri inguruko harizti eta larreei egokiago iritzi genien ermita altxatzeko, Hernaniko herriaren begi-bistan geratuko zelako eta, batik bat, Zikuñagako auzotik gertu aurkitzen zelako.

Gainera, hasiera-hasieratik garbi genuen, Zikuñagako Andre Mariaren oroimena eta benerazioa auzotarren eta herritarren tradizio eta jai-giroarekin loturik jarraitu behar zuela. Horregatik, ermitaren inguruko parkeari erabilpen sozial eta ludikoa ematea bidezkoa iruditu zitzaigun. Are gehiago, Zikuñagako auzategiak gaur egun dituen muga eta herstura urbanistikoak kontutan hartuta.

Azken lau urte hauetako harremanak eta gestioak (2017-2021)

Berrogeita sei (46) urte pasa badira auzi honen jatorri hartatik. Eta ermita berreraikitzeko proiektua martxan jartzeko ere 4 urte pasa dira. Landa-gune batean berreraikitzeko, aparteko baimen bereziaren beharrean gertatu izan gara. Eta horrela, lehenbizi Gipuzkoako Foru Aldundiak interes publikoko on-

ZIKUÑAGAKO AMA ERMITA

ZIKUÑAGAKO BASELIZAREN BERRERAIKITZEA

mugarri historikoak

1529 Zikuñagako Ama Birjinaren gurtzaren lehen aipamen idatziak.
XII-XIII mendeko irudi gotiko zuria.

1935 Bere inguruan Papelera Gipuzcoana de Zikuñaga SA enpresa kokatzen da.
XX mendeko industria-garapena: Industria asko Urumea ibaiaren ertzak hartzen dituzte.

1949 Ermita zaharberritu eta XVII. mendeko erretaula kentzen da.
Ama Birjinaren irudia, gotiko zuria, zaharberritzera bidaltzen da.
Bueltakoan, estiloz eta kolorez erabat aldatua itzultzen da.

1974 Paper-fabrikak Ermita kokatuta dagoen lursaila erosten dio Gotzaindegiari.
Eztabaida eta polemika handia sortzen da herrian.
Baseliza beste leku batera eramatea adosten da.

1979 Ama Birjinaren irudia lapurtua da (Ostegun Santua, 1979ko apirilaren 13a)
Ordutik ez da ezagutzen non dagoen.

1985 Azken meza ospatzen da (1985eko irailak 10)

1987 Baseliza desmuntatu eta eraitsi egiten da (1987ko uztailaren 3a)
Baimena baldintzatua ematen da: baseliza berreraiki beharko da.
Fatxadako harriak Papeleran gordetzen dira ordutik.

2016 Zikuñagako kapera eraikitzen da San Juan Bataiatzailea elizan.
Baselizaren berreraikuntzari berriro ekin eta bultzada ematen zaio.

2020 Gipuzkoako Foru Aldundiak interes publikotzat jotzen du berreraikuntza.
Hernaniko Udalak Zikuñagako baseliza berreraikitzea onartzen du.

2021 2021eko irailaren 8an, Hernaniko zaindariaren egunean, Zikuñagako Ama Birjinaren egunean, ZIKUÑAGAKO ERMITA berriaren inaugurazio jaiak ospatuko dira.



dare aldarrikatu izan du, eta Jaurlaritzako sail desberdinetako oniritzia jaso (ingurumena, ur agentzia, baita aireko hegazkinen gain-pasaera, etab.). Prozesu administratibo luze baten ondoren, berreraikitzeko proiektua onartu berri du Hernaniko Udal Gobernuak, aldez aurretik Udalbatza Osoko alderdi guztiek aho batez oinarriko proiektua onetsi izan ondoren.

Prozesu administratibo luze hau gertatu bitartean, fenomeno sozial eta humano pozgarri eta eskergarria eman da. Garai batean, zaila bazen irudikatzea, gaur egun hainbat harreman eta lankidetza bideragarri gertatu izan dira. Garai bateko egoera eta baldintza gatazkatsu eta konfliktibo haietatik hurbiltze eta elkar-kidetza batera aldatzeko aukerak bideratu zaizkigu.

Jarrera abegikorra eta kolaboratzailea aurkitu izan dugu hasiera-hasieratik bai Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga-ko zuzendaritzatik eta, noski, Zikuñagako auzoko bizilagunen partetik. Hauen aldetik sentiberatasun eta babes emozionala jasotzeko parada izan dugu. Eta, ozenki esan genezake, bere zailtasun, muga eta guzti, jakin izan dutela Zikuñagako auzoa bizirik eta tradizio erlijiosoari tinko mantentzen. Bere zaindariari dagozkion festa egunetan, irailaren 8. egunaren ondoko asteburuan ez-ezik, baita urtean zehar ere, adineko eta haurrengan arreta berezia jarriz.

Donostiako Gotzaindegiaren partetik, proiektu honen hasieratik bertatik ulertu izan da, bertan jokatzen zena auzi historiko batez haratago, aurreko jenerazioen tradizioaren memoria eta oraingo jeneraziokoen iritzia zegoela jokoan. Puntu hau ikertu eta egoki azaldu bere masterrean hernaniar gazte batek. Laburki bada ere, hemen jasotzen dut bere tesiaren ondorio nagusietako bat.

Ermitari buruzko gure proiektua abiapuntu hartuta, hernaniar gazte unibertsitario batek Paisaia, Ondarea, Lurraldea eta Hiria kudeatzeko master-idazlana du egina. (1). Bertan herri honen ondarean biltzen diren alderdi historiko, kultural eta tradizio erlijiosoak analizatzen ditu gure proiektuan. Autore adituen irizpideari jarraiki, Zikuñagako ermitaren berreraikitze proiektuak alderdi horiek biltzen eta jasotzen dituela dio. Eta bi ondorio hauek ateratzen ditu:

- Ermitaren eraikuntza zegokiokeen paisaia propio eta berariazkoari men egin egiten diola, eta paisaia horretan zegoen hutsunea betetzen duela, horretarako bere garaian egindako akats nagusienetako bat zuzenduz: paisaia horretan parte hartzen duen biztanleriaren iritzia kontutan hartu ez izana, adin-tarte desberdinetako jendeari eginiko galdeketan, ageri denez.
- Arestian aipatutako alderdi historiko, sozial, kultural eta erlijiosoak herri honen memoriarako jasotzen dituela, ermitak Zikuñagan betetzen zuen papera ahalik eta hoberen berreskuratuz.

Bukatzeko

Apalki, baina egiaz eta bihotzez, esana dut eta diot, "ermita berreraikitzeko proiektua burutzea bezain garrantzia izan duela proiektu integratzailea izateak". Lehengo eta oraingo garaiak islatzen direlako eraikuntzaren egitura arkitektonikoan; eta gizarte eragile anitza bateratu duelako bere inguruan eremu sozial, politiko, kultural eta ekonomiko desberdinetatik.

Eta pozgarria da, alderdi historiko, kultural, sozial eta erlijioso anitzak bere baitan zeramatzan gatazka modu eraikitzaile eta erresolutibo batean bideratu izana, denon aldetik jarrera baikorra eman izan delako.

Eskerrak bihotz-bihotzez proiektu hau aurrera ateratzeko jaso dugun arnas eta lankidetzagatik.

Hernani, 2021eko irailaren 8 (Zikuñagako Amaren eguna).

Zikuñagako Andre Mariaren goratzarrea



Antzinatik dator
herritar joera
Maria zaindari
tokiko egitea

Zortzi mendez gero
guganatu da:
Hernanik zaindari
badu Andre Mari

Noiz-nola agertu zen
ez jakin arren,
ez zikoinak bertan
pausatzen ziren

Horrela, guk dugu
orain omentzen,
eginez bertako:
Zikuñagako

Asabak bezala
gu babes eske
haur, gazte, adineko
hernaniarrentzat

Agur, agur, agur Maria
agur, agur, Ama gurea

Asabak bezala
gu babes eske
haur, gazte, adineko
hernaniarrentzat

Agur, agur, agur Maria
agur, agur, Ama gurea

1.- Saenz de Urturi Erice, Marti, *El paisaje ausente: el caso de la desaparición de la ermita y la Virgen de Zikuñaga, en Hernani.* Gestión del Paisaje, Patrimonio, Territorio y Ciudad. EHU. 2018/19.

RECONSTRUCCIÓN DE LA ERMITA DE ZIKUÑAGA
(HERNANI)

Xabi Arraztio Oiz - Eneko Uranga
(Arquitectos)

En el proyecto de reconstrucción de la ermita de Zikuñaga nos enfrentamos a dos cuestiones fundamentales: ¿cómo se reconstruye la memoria? ¿cómo hacer una ermita en el siglo XXI?

La ermita de Zikuñaga es un paisaje ausente en Hernani desde su desmantelamiento y derribo en el año 1987. Quedan testimonios y recuerdos de muchos hernaniarras, pero eso es algo intangible, difícil de materializar en una realidad física como la que es una obra. Apenas quedaban unos sillares de piedra numerados uno a uno, custodiados desde hace más de 30 años en la Papelera de Zicuñaga, guardados en cajas de madera, esperando volver a ocupar su lugar, guiados por un preciso levantamiento de la fachada realizado en su día.



Plano de levantamiento de fachada, en el momento de su desmontaje (1987).

Desmontaje y almacenaje de las piedras de la fachada (1987).

Sillares de la fachada almacenadas en la Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga (2020).

En 2020 pudimos comprobar personalmente que las piedras seguían allí, guardadas, custodiadas por el compromiso adquirido en 1987 de volver a levantar la ermita. Abrir aquellas cajas, tocar las piedras, fue sentirse como Indiana Jones en una de aquellas películas de aventuras de los 80. Ya disponíamos de los elementos materiales para reconstruir la memoria.

El levantamiento de la antigua silueta de la ermita se convierte en elemento central del proyecto. Levantar la fachada, colocar sus piedras numeradas para ser vistas y así reconstruir la memoria, trayendo al presente parte de lo que fue (la fachada como símbolo de toda la ermita), y reavivar recuerdos para quién la visitó alguna vez, creando unos nuevos para quien la observe y la visite de aquí en adelante.

La ermita es visible desde distintos lugares de Hernani. Un paseo por Atzieta kalea (situada extramuros del casco medieval) la permite poner en relación con dos hitos del paisaje hernaniarra (los montes Onddi y Adarra).

Se generan otras visuales muy interesantes como la que relaciona el arco ojival, vestigio del casco amurallado de la villa, con la ermita.

Grabado antiguo de la ermita de Zikuñaga, con los montes Onddi y Adarra al fondo.



Vista desde Atzieta kalea (secuencia: ermita – Onddi – Adarra).

Ermita de Zikuñaga desde arco medieval del casco histórico.

Los montes Onddi, Adarra y Santa Bárbara, la puerta de las murallas, Portalondo, el pórtico del convento de San Agustín, la torre-campanario de la iglesia de San Juan... son algunos de los referentes paisajísticos de los hernaniarras. La silueta de la fachada de la ermita de Zikuñaga quiere volver a formar parte de esa memoria.

La parcela donde se reconstruye la ermita está situada en un alto en Zikuñaga auzoa, desde donde, bajo la protección de un robledal, se pueden contemplar unas hermosas vistas de Hernani. Puede convertirse en una nueva atalaya, como la que es hoy en día la ermita de Santa Bárbara. Un referente que visitar para mirar y ver desde la distancia la villa de la que es patrona la Virgen de Zikuñaga desde el año 1954.

Parcela donde se ha reconstruido la Ermita junto al barrio de Zikuñaga (Hernani).

Reconstruimos la memoria levantando la fachada de la ermita en un lugar visible. Ahora nos enfrentamos al reto de construir una ermita del siglo XXI. Por una parte, analizamos los usos que tuvo la ermita a lo largo de la historia (celebraciones, romerías...) y los contrastamos con las necesidades actuales. Nos encontramos con un pueblo menos religioso que ha transformado ciertos actos religiosos de antaño en



otros de carácter más laico (una romería en honor a la Virgen se transforma en unas fiestas de comida popular seguido de un concierto de música, sin ninguna motivación religiosa). Unos usos cambiantes, flexibles, inciertos, propios de estos tiempos "líquidos" que vivimos, poco dados a certezas y afirmaciones absolutas.

Por otro lado, tenemos la tipología de ermita: una nave sencilla que alberga la imagen de la Virgen.

Fruto de todos estos factores se proyectan 3 elementos:

- La **fachada** como reconstrucción de la memoria de la antigua ermita.
- El **oratorio**, espacio interior donde estará la imagen de la Virgen iluminada cenitalmente.
- El **aterpe** o zona de protección, acogida y estancia.

Estos nuevos elementos arquitectónicos (oratorio y aterpe) no quieren competir con la antigua fachada, sino que la acompañan e integran el edificio en su entorno más inmediato.



Maqueta de la Ermita de Zikuñaga (2021).

El edificio se adapta y potencia el paisaje en el que está asentado. Acercarse hacia la fachada, penetrar en el aterpe, bordear la ermita... permite descubrir diferentes espacios que se generan en torno a ella. Sentarse en las bancadas a los pies de la fachada, y contemplar el paisaje que nos rodea, con Hernani al frente. Comer, descansar bajo la sombra protectora de los robles o el aterpe. Ver cómo las gárgolas conducen el agua de lluvia hasta las pilas de hormigón. Mirar y descubrir desde las distintas aberturas la Virgen que descansa en el oratorio. Celebrar en el exterior aquellos acontecimientos significativos de la vida de la comunidad. Fiesta y multitud, soledad y contemplación. La ermita se presta a tantos usos

como podamos imaginar, y a tantos otros que ahora mismo no podemos prever, pero que la arquitectura del edificio permitirá.

Se han empleado 3 materiales para la reconstrucción de la ermita: piedra, hormigón armado y alumino.

Los sillares de piedra caliza son los originales de la Ermita, numerados, desmontados y guardados desde el año 1987. En julio de 2021 las 48 cajas salían de su largo letargo en la Papelera y las piedras volvían a hablar gracias al buen hacer del cantero Carlos.

El hormigón armado es el material estructural y de acabado del nuevo edificio. Las formas irregulares y las pronunciadas pendientes de las cubiertas han sido todo un reto constructivo, desde el encofrado hasta su hormigonado. El perfil de la fachada con su arco de piedra apuntado nos conecta con el pasado. Los muros de hormigón y las cubiertas inclinadas que se contemplan desde el robledal nos vinculan con la arquitectura actual.

El aluminio cubre las cubiertas de hormigón, plegándose para recoger y verter el agua de lluvia por medio de las gárgolas en las dos pilas de hormigón. La pila invertida o lucernario ilumina cenitalmente a la Virgen de Zikuñaga, que se puede contemplar desde las distintas aberturas hechas en los muros o en la propia carpintería, también de aluminio, para mantener una coherencia en el lenguaje de los materiales empleados.

Y es así, como reconstruimos la Memoria de lo que fue y proyectamos una Ermita de Zikuñaga hacia el futuro que está por llegar. No ha sido un camino

Ermita de Zikuñaga, derribada en 1987.



Ermita de Zikuñaga, reconstruida en 2021.

fácil. Los trámites urbanísticos para declararla de interés público se iniciaron en 2017 concluyéndose en el año de la pandemia 2020. A esas dificultades administrativas y burocráticas se le han unido otra serie de obstáculos a flanquear: la elección de una parcela idónea (cercana al barrio de Zikuñaga y visible desde Hernani), un presupuesto ajustado que no se podía sobrepasar, resistencias a la hora de edificar una Ermita en estos tiempos de crisis religiosa...

Pero gracias a la férrea voluntad y entusiasmo de algunas personas, en especial la del Párroco de Hernani José Luis Aperribai con su capacidad de aglutinar a personas de distintos ámbitos en el proyecto de la reconstrucción, por fin se ha hecho realidad el viejo sueño de visitar la Ermita de Zikuñaga.

IGERIKETAREN ARIAK HERNANIN EZ DU ETENIK

Iñigo Goñi Iradi

Hernanin igeriketak badu bere historia interesgarria. Taldea 1984 urtean Elorrabi izenarekin sortu zen eta 37 urte hauetan izen nabarmenak eman ditu: Luis Goñi, Iñigo Goñi, Olatz Altuna, Mañel Aizpurua, Maitane Danborena, Itsaso Tolosa eta Enaitz Goñi esaterako.

Hego Euskal Herrian igeriketak garapen ezberdina izan zuen XX. mendean zehar. Hiriburuen bueltan garatu zen Iruñean, Donostian, Bilbon eta Gasteizen edo kostako herri konkretu batzuetan, itsasoari lotuak; Getxo, Zarautz edo Santurtzi esaterako. Barrualdeko herrietara igeriketa beranduago, kiroldegi eta barruko igerilekuen eraikuntzarekin batera, iritsi zen batez ere 70, 80 eta 90eko hamarkadetan. Hernani ez zen salbuespena izan. 60.eko hamarkadan Jose Antonio Elola Olaso zen Espainiako Kirol Zuzendaria eta Hernanin puntako instalakuntzak eraikitzearen alde zegoen, baina ez zen posible izan eta Ordizia eta Tolosako herriek eman zituzten inbertsio horiek. Honela, urte batzuk itxaron behar izan ziren Hernanin kiroldegia inauguratzeko. Azkenik, 1983. urtean Juanjo Uria alkate zela eta Ricardo Mendiolak kargua hartzear zuela inauguratu zen. Carlos Garaikoetxea lehendakariak parte hartu zuen inaugurazio ekitaldian, nahiz eta igerilekuak oraindik ez egon amaituta. Hortik hilabete gutxira zabaldu ziren igerileku handia eta txikia. Handia bost kalekoa, 25x10, eta berritzailea, hondoa sakona baitzuen, gutxienekoan 1,80 metro, waterpolora jokatzeko egokia.

Jose Luis Fernández Arregi, aitzindaria

Hala ere, nahiz eta igerilekurik eta igeriketa klubik ez egon, Hernanin baziren igerilariak. Donostiako taldeetan aritzen ziren eta maila oso altuan ibilitakoak ere baziren. Aitzindariak izan ziren Jose Luis Fernández Arregi eta anaia Mikel Fernández Arregi. Osiñagako anaiak Easo taldekoak ziren eta ondoren Michelin taldera egin zuten salto. Jose Luis Fernández Espainia mailan ibili zen igeri. Espainiako Txapelketetan aurrean ibiltzen zen eta adineko errekorrak izatetik gertu izaten zen. Bere taldekide eta adin hantzekoa zuen Iñigo Etxaniz donostiarra edota Harri Garmendia besaiandarrarekin, olinpikoa Los Angeles 1984an eta Seul 1988an, aritzen zen lehia estuan. Garmendia Euskal Herriak bere historian izan duen igerilaririk onena da Ricardo Aldabe nafarrarekin batera eta Iñigo Etxanizek Madrilgo Mundialetan parte hartu zuen 1986 urtean. Jose Luis krol, bular eta estilo probetan zen espezialista eta 100 metro librean minututik jaitsi zuen lehenengo hernaniarra izan zen. Igerilari goiztiarra izan zen eta berak zioen bezala entrenamendu saio gogorregiak "erre" egin zuten. Oso gazte amaitzen zen igerilarien kirol ibilbidea urte horietan eta hernaniarrarena oraindik eta lehenago iritsi zen amaierara zer nolako maila zuen kontuan hartzen bada.

Elorrabi, Hernaniko taldearen lehenengo izena

Igerilekuen zabalkundearekin handik eta hemendik igeriketa taldeak sortu ziren eta Hernanin ere taldea sortzeko proiektua jarri zuten abian Arantxa Urbietak eta Iñaki Iurramendik. 1983 urtea zen, baina taldea oraindik ez zen eratu. Horretarako igerilariak behar ziren, kirol zuzendaritza eratu, izena pentsatu eta behar ziren pauso guztiak eman.

Iñaki Iurramendi eta Arantxa Urbieta donostiarrak, Hernaniko igerilekuan hasi ziren lanean igeriketa irakasten. Monitoreak ziren eta igerilari ohiak. Iñaki Iurramendi Espainiako txapeldun izandakoa eta Gipuzkoako kirolari onena ere aukeratua 70.eko hamarkadako urteren batean. Igeriketa utzi eta gero saskibaloi jokalari bihurtu zen eta *Askatua*ken jokatu zuen Lehenengo Mailan. Arantxa Urbieta ere igerilaria izandakoa eta aurten hartu du jubilazioa kiroldegian. Taldeko "alma mater"ra izan zen Arantxa eta bere eskuetatik milaka hernaniarrek ikasi dute igeri. Herriko gazteei probak egiten hasi ziren eta aurreneko pausoa eman zen, igerilariak izatearena. 1984an hasi zituzten entrenamenduak hilabete batzuk au-

rretik zabaldu zen igerilekuan eta hurrengo pausoa taldea eratu, forma eman eta izena bilatzea izan zen, txapelketetan parte hartzen hasteko. Izena aukeratzekoan kontutan hartu zen hernaniar askok eta askok ordura arte non ikasten zuten igeri egiten eta Elorrabin ikasten zela jakina zen. Honela, taldearen lehenengo izena Elorrabi izan zen. Oso egokia, igeri egiteari eta Hernaniri oso lotua zegoela kontuan hartuz gero. Lehenengo kirol zuzendaritzan zeuden Iñaki Iurramendi, presidente, Arantxa Urbieta, Jose Luis Goñi, Jesus Sarasola eta Segundo Alejos. Igerilarien artean besteak beste Jesús Martínez, Xabier Balerdi, Gurutze Urigoitia, Ainhoa Quirce, Eduardo Vázquez, Monica Porto, Ibon Zabala, Luis Goñi, Unai Moraza, Unai Garmendia, Miren Zabala, Mila Cuenca, Maria Jesus Pastor... Lehenengo txapelketak 1985 urtean hasi zituzten eta taldeak garapen handia bizi izan zuen hilabete gutxitan.

Herri askotan ari ziren taldeak sortzen eta modan jarri zen kirola zen igeriketa. Talde ezberdinetan banatu ziren igerilariak adinaren arabera. Arratsaldeko 08:30etatik 10:00etara nagusiek entrenatzen zuten Iñaki eta Arantxarekin eta 18:30etan gazteagoek. Hernani 50 igerilaritik gora izatera iritsi zen urtebetean. Inguruko herrietatik ere etortzen ziren horien artean Errenteriatik Mendoza anaiak, Errenteriako alkate izan den Julen horietako bat, aita hernaniarra izaki; Andoainetik Iosu Aierza eta Pello Zabala, Donostiako Aiete auzotik ere etortzen ziren gaztetxoak igeri.

Eskolarretan hasi ziren konpetizioak eta federatu mailan ere bai. Gazteenak Jose Luis Fernandezek prestatzen zituen eta belaunaldi berri bat etorri zen: Joxemi Sánchez, Mikel Gaztelu, Gorka Sarasola, Iñigo eta Aitor Goñi, Lander Moraza, Iosu Aiertza, Lander Mokoroa, Eider Goikoetxea, Ismael Pereda, Ivan Rojas, Itxaso Zabala, Yoli Pastor, Iker Mendoza, Iker Irazu...

Elorrabi izatetik, Hernani Kirol Elkartea izatera

Hernaniar igerilariak gero eta denbora hobeak hasi ziren egiten eta aurreko belaunaldia eta hurrengoarekin emaitza onak hasi ziren etortzen. Tartean waterpolo taldea sortu zuen Iñaki Iurramendik eta Gipuzkoako lehenengo taldea eraiki zen. Kiroldegian egiten ziren kirol ezberdinak batu egin ziren eta Hernani Kirol Elkartea sortu zen 1987-88 urteetan eta Elorrabi izatetik igeriketa taldea Hernani Kirol Elkartea bihurtu zen.

Euskal Herriko igerileku guztietan aritzen ziren lehiatzen Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelketa ezberdinetan. Ligako probetan denak aritzen ziren eta txapelketa nagusietara joateko gutxiengo denborak zituztenak joaten ziren.

Zeharkaldietan ere hasi ziren partehartzen. 1987ko Getaria-Zarautzen hartu zuen parte taldeak lehendabiziko aldiz. Zeharkaldi gutxi izaten ziren, baina Ondarroakoara ere joaten ziren hernaniarrak eta Kontxako Badiakora ere bai.

100 metro librean minututik jaitsi zuen lehenengo igerilaria Luis Goñi izan zen 1990 urtean. Bere anaia Iñigo Goñi, berriz, Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Hernani Kirol Elkarteko aurreneko igerilaria, 1991 eta 1994 urte artean aritu zen hainbat Espainiako txapelketetan. Luisek ere zeharkaldietan emaitza onak lortzen zituen eta Ondarroakoan bi garaipen jarraian lortu zituen eta Getaria-Zarautzen bost lehendabizikoaetan kokatzen zen. Iñigok bere ibilbidearekin jarraitu zuen eta Gipuzkoako errekorra egin zuen 1993an 50 metro bizkarren, igerileku luzean.

Urte horretan bertan aldaketak izan ziren Hernaniko igeriketan. 80. hamarkadaren amaieran Iñaki Iurramendik entrenatzaile izateari utzi zion eta 1992an Arantxa Urbietak ere taldea utzi zuen eta bi entrenatzaile berrik hartu zuten taldearen ardura.

Beste bi mutil gazte donostiar bihurtu ziren Hernani K.E. entrenatzaile; Arkaitz Angiozar eta Juan Alonso. Azken honek ez zuen denbora askorik egin eta hilabete batzuk egon eta gero Arkaitz Angiozar geratu zen entrenatzaile moduan. Taldeko 'beterano' askok dagoeneko talde utzi zuten eta belaunaldi berri baten txanda zen.

Olatz Altuna, Maitane Danborena eta Mañel Aizpurua, punta puntan

Igeriketaren bereizgarri handienetakoa igerilarien adina izaten da, gehienetan oso gazteak, eta zaila da 20 urte edo gehiagoko igerilaririk egotea taldeetan, batez ere urte horietan. 90. hamarkadaren erdialdera beste aldaketa bat egon zen kirol arloan. Arkaitz Angiozarrek Ibon Mendozari eman zion erreleboa entrenatzaile lanean.

Itxaso Zabala eta Yoli Pastorri Mikel Andres, Peru Alfaro eta Olatz Altuna batu zitzaizkien Euskal Herri mailako txapelketetan. Espainiako txapelketetan ordezkaritza izateko oraindik ere zain egon behar zen.

Igerikera aldatzen ari zen eta bainu jantzi berriak, igerileku hobeak eta entrenatzeko modu egokiagoak iritsi ziren. Hernanin aldaketa horiek ere nabaritu ziren eta hor Jon Murua zaldibirtarraren lana azpimarratzekoa izan zen. Ibon Mendoza eta gero Uxue Fraile zen entrenatzailea eta 2001garren urtean hartu zuen taldearen gidaritza Ion Muruak, 2004 urtera arte. Olatz Altunak Espainiako lehenengo gutxiengo markak lortu zituen eta urtero urtero ohikoa zen bere partaidetza Espainiako txapelketa ezberdinetan 18 urte zituenetik 2001. urtetik. Zazpi urte eta gero berriz ere hernaniar igerilariak ari ziren igeri goiko mailan.

Olatz Altunari batu ziren Oihane Sanz, Alazne Egiazabal, Itsaso Tolosa eta batez ere Mañel Aizpurua

eta Maitane Danborena. 2001 urtetik 2015 urtera arte ia urtero izan zuen Hernanik ordezkaritza Espainiako Txapelketan. Gainera emaitzak gero eta hobeak ziren.

Hazkundea nabaria zen eta Olatz Altuna, Mañel Aizpurua eta Maitane Danborena dominen bueltan ibiltzen ziren behin eta berriz. 2007 urtetik aurrera salto ikaragarria eman zuten Olatz Altuna eta Mañel Aizpuruak. Hernaniko taldetik Fortuna taldera igaro ziren eta bertan berriz ere Jon Muruaren agindupean hasi ziren igeri. Hernanin entrenatzaile aldaketa egon zen eta Gerizpe Iraola eta Iker Bazterrikak hartu zuten 'agintea' 2004-2005 denboraldian.

Dominak Espainiakoan eta Euskadiko errekorrak

2007 urtean Altuna finaletan sartzen hasi zen eta bosgarren geratu zen Espainiako txapelketan 50 libretan absoluto mailan. Mañel Aizpuruak ere finalak gertu zituen eta Maitane Danborena bera ere finaletik gertu zegoen junior mailan. Lehenengo biak krol estiloan ziren espezialistak eta Danborena berriz bizkar estiloan. 2008an iritsi ziren lehenengo dominak. Udaberriko Espainiako Open txapelketan Gipuzkoako errekorrak gertu izan zituen Mañekel eta udan, Terrasan, lau domina irabazi zituzten Altuna eta Aizpuruak. Olatzek zilarra leporatu zuen 50 metro libreetan eta Bardulia taldearekin, erreleboan, brontzea jantzi zuen 4x50 libreetan. 3 Aizpuruak taldeka lortu zituen bi zilarrezko domina, 4x50 libreetan eta 4x100 estiloetan Barduliarekin. Gainera, Mañel Aizpuruak lau Euskadiko errekor apurtu zituen, hoerietako bat 100 libreetan 51.46ko markarekin 50 metroko igerilekuan. Beste hiru errekorrak erreleboetan egin zituen Barduliarekin.

Hala ere, hoberena iristeko zegoen. 2008-2009 denboraldia amestekoa izan zen. Malagan Udaberriko Espainiako Open Txapelketan,Olatz Altunak 50 eta 100 librean parte hartu zuen eta bi frogetako finaletan sartu zen, txapelketako 8 hoberenen artean. Bi finaletan 7garren postua lortu zuen. 100 metroko frogan bere denbora onena egin zuen 57.62 (aurrekoa 58.11koa zuen).

Mañel Aizpurua ez zen finalerdian sartu 50eko frogan, bai ordea, 100 eta 200 metrotan. 100 metrotan bere aurreko marka eta Euskadiko errekorra hobetu zituen, sailkapen saioan, 50.70ean jarriz. Hori gutxi ez, eta finalerdian bere marka gainditu zuen berriro 50.32an jarriz errekorra, Estatuko urteko 5garren eta inoizko 11garren markarik onena eginez. Finalean 6garren postua egin zuen. 200 metrotan ere bere marka hobetu zuen eta 7garren postua lortu zuen.

Hortik astebetera, Castellonen kluben arteko txapelketan 200 libreetan egin zuen Euskal Herriko errekorra 25 metroko igerilekuan 1.47.64ko denborarekin eta 100 metro libreetan 49:11 denborarekin, gainera proba hau irabazi egin zuen. Altunak ere egundoko denborak egin zituen eta 50 metro libreetan 25.22ko denborarekin ere errekorra lortu zuen. Espainiako errekorretik sei ehunekora geratu zen.

Udako Espainiako Txapelketak Las Palmasen izan ziren eta bertan domina gehiago eta errekor berriak lortu zituzten 50 metroko igerilekuan. Denboraldia ezin hobeto bukatu zuten Hernaniko igeerilariek. Olatz Altunak eta Mañel Aizpuruak bakarka eta taldean domina ugari lortu zituzten. Jon Murua entrenatzaileak Kronikari azaldutakoaren arabera, nazioartean lehiatzeko maila dutela erakutsi zuten eta txapelketatik ateratako balorazioa oso positiboa izan zen. «Biek oso maila altua dutela eta Estatu mailan hoberenen artean daudela erakutsi dute. Nazioarte mailan lehiatzeko moduko maila dute. Oso marka onak lortu dituzte» zioen entrenatzaileak. Mañelek 100 libre frogan zilarrezko domina lortu zuen eta Euskadiko errekorra ere bai 49.75 denborarekin. Olatzek, aldiz, 50 librean lortu zuen zilarrezko domina eta baita Euskadiko errekorra ere, 25.94 denborarekin. Horrez gain, Maitane Danborenak lehenengo aldiz hartu zuen parte halako mailako txapelketan, eta 100 bizkar frogan finalera pasatzea lortu zuen. Bere adinekoen artetik lehenengoa izan zen, denen artetik 16garren geratuta.

Danborenak egun batzuk lehenago adineko txapelketan domina lortu zuen. Ourensen. Danborenak brontzezko domina lortu zuen 50 bizkar frogan. Alazne Egiazabal, bestalde, 50 libre frogan lehiatu zen eta lehen aldiz txapelketa horretan emaitza txukuna lortu zuen.

Danborena hiru frogatan jardun zen eta hiruretan goizeko klasifikatoriak pasa zituen eta finaletan sartu zen. Ostegunean 100 Bizkar frogan 1.06.19ko denborarekin 6garren postua lortu ondoren, ostiralean 50 bizkar frogako finalean bere denbora onena egitea lortu zuen. Horrez gain, Euskadiko 16 urteko errekorra bitan hautsi ondoren, brontzezko domina lortu zuen.

Hernaniko igerilariak etxetik kanpo

Hurrengo urtean bainujantzien araudia aldatu zen eta 2009ko denborak ez zituzten hobetu igerilariek hurrengo urteetan. Hala ere dominak lortzen jarraitu zuten. Aizpurua eta Altuna Barduliako igerilariak ziren eta Danborena eta Egiazabal Buruntzaldekoak. Hernani Buruntzaldeako proiektuan murgildu zen Borja Apeztegia entrenatzaile zela. Itsaso Tolosa ere Espainiako Txapelketetan hasi zen parte hartzen.

Gutxi iraun zuen Hernanirentzako proiektuak eta taldeak berriz ere bere kontura jarraitu zuen Jon Ander Isuskizarekin entrenatzaile lanetan. Oraindik ere bera da entrenamenduen arduraduna. Hala ere, Tolosa, Aizpurua, Danborena eta Altuna Hernanitik kanpo ari ziren igeri.

Igerilari hernaniarrek bikain hasi zuten 2009-2010 denboraldia Espainiako Neguko Txapelketan Cas-

tellonen. Olatz Altunak 4x50 metro libreko proban hartu zuen parte, Bidasoa taldeko beste hiru igerilarirekin, eta urrezko domina lortu zuen. Mañel Aizpuruak ere 4x50 metroko proban hartu zuen parte, eta brontzezko domina lortu zuen. Aizpuruak Bardulia taldeko beste hiru igerilarirekin egin zuen proba eta 1:28:44ko denbora egin zuten. Udaberrian, Mañel Aizpurua, Olatz Altuna eta Maitane Danborena igerilari hernaniarrak Malagan izan ziren Espainiar Estatuko Open Absolutoa jokatzen eta lehenengo 15en artean ibili ziren hirurak.

Udan, Bartzelonan antolatu ziren Espainiako Txapelketak. Dominekin itzuli ziren etxera Mañel Azpurua eta Olatz Altuna igerilari hernaniarrak. Maitane Danborenak finalera pasatzea lortu zuen parte hartutako hiru frogetan.

Aizpuruak 4x100 erreleboetako proban lortu zuen zilarrezko domina. Horrez gain, 200 metro librean eta 100 metro librean finalerako sailkatu zen.

Olatz Altunak brontzezko domina lortu zuen proba berdinean baita ere, hau da, 4x100 erreleboetan. Altunak 100 metro libre eta 50 metro libreko frogetan ere hartu zuen parte, eta bietan finalerako pasea lortu zuen.

Maitane Danborenak, Oarsoaldea taldean, 200 metro bizkar, 100 metro bizkar eta 50 metro bizkar frogetan hartu zuen parte, eta guztietan lortu zuen finalerako pasea. Itsaso Tolosa Palma Mallorkan aritu zen infantilen txapelketan.

Hurrengo denboraldian ere absoluto mailan Aizpurua, Altuna eta Danborena Espainiako Txapelketa guztietan lehiatu ziren; neguan, udaberrian eta udan. Emaitzak ez ziren izan aurreko urteetakoak bezain onak, baina puntan zebiltzan, finaletan edo gertu. Hala ere Aizpuruak eta Altunak udako txapelketan ez zuten parte hartu eta goi mailako igeriketa utzi zuten. Maitane Damborenak egin zuen igeri udan, baina denboraldi hori amaituta utzi egin zuen igeriketa.

Igerilekuan garai onenak joanda, zeharkaldietan garaipenak Goñik eta Alfarok

Igerilekuko igeriketan Master Taldea sortu zen Hernanin eta garai batean taldean ibilitako Luis, Aitor eta Iñigo Goñi anaiak Munduko Txapelketara joan ziren Hernani taldearekin Suediara, Goteborg hirira 2010 urtean, 2009an Europako Txapelketan aritu eta gero Cadizen. Luis Goñik domina lortu zuen, brontzea, hiru milako proban ur irekietan. Igerilekuan ere dominetik gertu geratu zen, Iñigo Goñi bezala, 50 eta 100 bizkarren.

Gainera Luis Goñi 2009an zeharkaldiak irabazten hasi zen Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. 2009tik 2020 urtera, nahiz eta 36-47 urte izan urte horietan, 40tik gora zeharkaldi irabazi zituen. Zeharkaldi asko eta asko behin, bitan edo hiru aldiz baino gehiago eta bateon bat lau eta bost aldiz ere bai. Peru Alfarok ere zeharkaldiak irabazi zituen azken hamarkadan.

2015ean Munduko Master Txapelketan, Kazanen (Errusia), Iñigo eta Luis Goñik brontzezko domina lortu zuten 3.000 metrotan ur irekian. 35-39 eta 40-44 mailetan.

Igerilekuan Itsaso Tolosak Espainiako Txapelketetan erreleboa hartu zien Aizpurua, Damborena eta Altunari 2012 eta 2015 urteen artean.

Enaitz Goñik, Goñitarren familiari jarraipena eman dio arrakasta eta etorkizun handiarekin

Jon Ander Isuskizuna entrenatzaile zen eta 2013an azpimarratu zuen taldean 42 igerilari zeudela. 100 igerilaritik gora izan zituen urte oparoenetan eta ondoren 60-70 igerilari inguru mugitu zen. Talde modu apalagoan ari da lehiatzen, baina oraindik maila altuko igerilariak pasa dira Hernanitik eta hernaniar direnak.

Horietako bat izan da Enaitz Goñi. 2014an hasi zen Hernani taldean igeri eta bertan bi urte egin eta gero Fortuna taldera pasa zen. Urtez urte asko hobetu du eta azken hiru urteetan Espainiako Txapelketetarako gutxiengo edo marka minimak lortu ditu. Gainera pausoz puaso, 16 urterekin, junior mailan finaletarako sailkatu da eta kontuan hartzeko denborak egiten hasi da. Horri gehitu behar zaio zeharkaldietan duen maila altua. Azken udan bi irabazi ditu eta gaur egun Euskal Herriko fondistarik onena edo onena izatetik gertu dagoela esan liteke. Aurtengo denboraldia benetan izango da interesgarria Tolosaldea taldean bere ibilbidean eta gertutik jarraitzekoa. Gainera, Olatz Altuna eta Mañel Aizpuruarekin gertatu bezala Jon Murua du entrenatzaile.

Igerilekua berritu zen 2017an

Hernaniko igeriketan beste mugarri bat igerilekuaren berrikuntza izan zen 2017an. Garai berrietara egokitu da eta bost kale izatetik zortzi kale izatera pasa da eta horrek asko lagundu dezake kirolaren garapenean.

Hernani taldean azken urtean gazte mordoa hasi da igerian eta txapelketetan azken bost urteetako partaidetzarik handiena izango du Hernan Hernanik. Ariak ez du etenik eta igeriketak jarraituko du herrian orain 37 urte hasi zuen ibilbideari jarraitasuna emanez.

SANTA BARBARAKO PUTZUA:
IRAGANEAN MURGILDU ETORKIZUNA BILATZEKO

Iñaki Sanz-Azkue

Putzu handi bat harrobiaren oinean. Asfaltozko errepide estu bat, zelaiak eta baso txiki bat hura inguratzen. Aurrean duen paisaiak atentzioa emango dio handik pasatzen den pertsonari. Santa Barbarako putzuak, edo lakuak, deitu nahi diozun moduan, baduelako bere xarma. Hernaniar askoren paseo txikien geltoki, familian egiteko arratsalde pasen aitzakia, edota arrantzarako, meriendarako edo naturaz gozatzeko txoko maitatua bihurtu da jada.

Santa Barbarako lakuak, ordea, baditu ondo gorderiko sekretuak ere. Haren sorreratik hasi, eta egundaino igaro direnak: isilean, sakonean. Hala, erreportaje honetan, putzuan murgilduko gara, hernaniarrei lakuaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko. Santa Barbarako lakuari buruz sakonean mintzatzeko.

Azalpen gutxi behar du Santa Barbarako lakuak. Izen bereko auzoan, bertako harrobiaren oinean, Agerre eta Buztintxulo (egun Aize-eder izenekoa) baserrien artean aurkitzen da erreportajea hizpide izango dugun putzua. Ez dago han kasualitatez, ez. Eremuko geologiak eta gertaera historikoek eragin dute lakua hor sortu izana. Izan ere, askori harrituko dion aurreneko gauza hori baita: Santa Barbarako putzua ez da putzu naturala.

Ingurua zerbait ezagutzen duenak ederki asko jakingo du Agerre baserriaren ondoan badela zulo bat, inbutu formako sakon bat. Leku horiei "*dolinak*" deitzen zaie, eta kareharrizko (edo Hernanin esango genukeen moduan, *karaitz*ezko) eremuetan azaltzen dira. Santa Barbarako lakua dagoen eremua urik gabe irudikatuko bagenu, antzeko zerbait ikusiko genuke. Izan ere, dolina bat zegoen tokian dago orain ura pilatuta. Hargatik, leku askotan "hezegune karstiko" moduan dago katalogatua putzua. Eta bai, karstikoa da eremua, eta putzua bertan dago; baina... Zergatik sortu zen lakua dolina horretan, eta ez Agerre aldameneko zuloan? Zergatik batean bai, eta bestean ez? Zergatik hasi zen betetzen aurretik hutsa zegoen dolina?

Harrobian dago gakoa.



Santa Barbarako putzuaren itxura 2021eko irailean. (Argazkia: Marimi Azkue).

Harrobia eta santa barbarako lakua

Ez da kasualitatea Santa Barbarako lakua harrobiaren oinean egotea. Izan ere, putzuaren sorrera estuki loturik dago harrobiari, edo behintzat, haren esplotazio industrialari. XIX. mendearen hasieran, Hernaniko eta Gipuzkoako errepideen konponketa lanak egiteko asmoz, Santa Barbarako mendia zulatzen hasi ziren "laubidieta"ko inguruan, eta hala sortu zen harrobiaren lehen arrastoa. Orduan, oraindik, ez zen putzurik Santa Barbaran. Urteak, ordea, aurrera joan ziren, eta mende bat geroago, 1945 urte inguruan, pausu bat gehiago eman zuten, eta industrialki esplotatzen hasi ziren harrobia (ez iskanbila gutxirekin). Alegia, Santa Barbara mendian zegoen zuloa handitzen eta handitzen hasi zen mendebalderantz, Agerre baserria zegoen eremurantz.

Hala, Agerre inguruan zegoen inbutu formako zuloetako bat harrobiko hondakinekin edo zakarrare-

kin betetzen hasi ziren, eta pixkanaka, dolina horren azpialdea iragazgaiztu egin zen. Hortik aurrerakoak naturak berak egin zituen: euri urarekin betetzen joan zen zuloa, egun ezagutzen dugun Santa Barbarako putzua sortu arte.

Argazki aereo zaharrak, eta Santa Barbara inguruko eremuaren garai hartako argazkiak ikusi baino ez dago hori ziurtatzeko. 1956-57an amerikarrek ateratako argazkietan harrobi txiki bat ikusten da oraindik ere, baina lakurik ez. 1977-78ko argazkietan, harrobia asko zabaldu zela ikus daiteke, eta bertako hondakinak botatzen zituzten eremua garbi ikusten da. Egun putzua dagoen lekuan, ura ikusten da dagoeneko, eta horren atzealdean hondakinek osatzen duten mendixka bat, harrobian hasi eta lakuraino jaisten dena.

Argazki horietan, ordea, bada zerbait atentzioa ematen duena. Bai 1956ean, putzua sortu aurretik, bai 1977an, sortu ondoren, begirada zorrotzarekin begiratuta, lurrean zutik dauden konkor antzeko irudi berezi batzuk ikusten dira egun Santa Barbarako lakua dagoen eremuan: lur-sail horien jabeek egiten zituzten belar-metak dira.



Santa Barbara inguruko argazki aereoa (1956-57). Oraindik ez da putzurik ageri, eta dolina inguruan metak ikusten dira (argazkia: GeoEuskadi).



Santa Barbara inguruko argazki aereoa (1977-78). Bertan jada putzua ikusten delarik. Putzuaren aldamenean, metak lerrokatuak (argazkia: GeoEuskadi).

Belar-metak santa barbarako putzu inguruan...

Metak egoteak jada pista on bat ematen digu putzua sortu aurretik dolina zegoen eremuari ematen zitzaion erabilerari buruz. Iñaxio Urreagak (1947, Agerre baserria, Santa Barbara auzoa) ondo asko gogoratzen ditu paraje horiek nolakoak ziren: *"putzua sortu aurretik zulo bat zegoen. Gure baserriaren (Agerre) aldamenean dagoena bezalakoa, baina txikixeagoa. Zuloa belazeak estaltzen zuen, eta belar hori moztu egiten zuten lurjabeek".*

Iñaxio gaztea zenean, 23 urte inguru izan arte, laguntzen aritzen zen bertan. Artean Hipolito Arregiren *"Potrokillo"* familia zen lur haien jabea, eta Hipolito aritzen zen belarra moztu eta belar-metak egiten. Iñaxiok, ordea, gogoan ditu zuloaren behe aldetik, metak egiten ziren tokitik, goraino belarra igotzeko ibiltzen zituzten komeriak: *"Hipolitok gurdia metako belarraz kargatzen zuen, baina behetik gorakoan, haren behiek ezin igo malda, zulo hark 20 bat metro izango baitzituen gutxi gorabehera, eta aldapa handia. Hala, puntakoa jartzen genuen: gure idi parea jartzen zen behien atzetik, lotuta, eta hala, lau animalien artean igotzen zuten gurdi-belarra. Han izaten ginen Eugenio aita, Kepa anaia edo neroni laguntzen".*



Belar-meta Santa Barbara putzuaren aldamenean, 1980an. Atzealdean Agerre baserria, aldamenean zituen metak ere ikusten direlarik. (Argazkia: Ines Sarasuaren argazki bilduma).

Iñaxiok gogoan du oraindik ere aldapa hura igotzeko euren baserriaren aldera ateratzen zen maldatik egiten zutela gora. Hura baitzen magal leunena zegoen puntua. Bide legea. Metak zuloaren behe aldean izaten ziren, baina ez ziren, ordea, inguruan belar-metak egiten zituzten bakarrak. Iñaxiok gogoan du orain zuloaren kanpo aldean, errepidea dagoen kontra horretan ere izaten zirela metak, baina haiek Karabel auzoan, zubiaren aldamenean zegoen etxekoek (Eguzki-alde) egiten omen zituzten.

1970. hamarkadaren hasieran, ordea, aurretik esan den moduan, harrobiko zakarra zulora botatzen hasi ziren. Orain, 50 bat urte beranduago, paisaia erabat aldatu da, eta aurretik nola zen ezagutu ez zuenak, kostata sinetsiko du Santa Barbarako putzua, Iñaxiok dioen moduan, ez dela naturala: *"artifiziala da"*.

Harrobitik erortzen ziren hondakinek sortu zuten Santa Barbarako putzua, irudian ikus daitekeen moduan. 1983ko irudia (argazkia: Ines Sarasuaren argazki bilduma).

Bazkaria sari, lurrak saltzerakoan...

Putzua sortu aurretik zegoen zuloa ez zen erosoena lanerako, baina besterik ezean, hango belarra ateratzea komeni izaten zen, gero ukuilura eramateko. Hala, Hipolitoren alabak, Maite Arregik gogoan ditu han ibiltzen zituzten lanak: *"Aurretik gure aitonarenak, amaren aitarenak izan ziren lur haiek: Anselmo Arbiderenak. Txikia nintzen ni artean, baina gogoan dut, aita belarra mozten aritzen zela. Horretarako laguntza izaten zuen. Jose Izagirre eta Jose Intxarburu joaten ziren laguntzera. Gure ama Pepitak eta ahizpa Rosak ere izaten zuten lana. Belarra moztu ostean, lehortzen uzten zen bertan, eta hurrengo egunean, ama eta ahizpa joaten ziren hari buelta ematera".*

Harrobia handitzen joan zenean, ordea, harrobiko jabeak sendiarekin jarri ziren kontaktuan, eta haien lurrak erosteko eskaintza egin zieten. Hala, haien terrenoa harrobikoei saldu zieten. *"Gure aita pozik zen oso. Lur txarra zen hura lanerako, harri askorekin belarra mozteko, hura zulotik ateratzeko lanak... sos batzuk atera zituenez salmentarekin, familia osoa bazkaltzera joan ginen egun hartan. Ospatzera."*

Hortik aurrerakoak kontatu ditugu jada. Harrobiko hondakinak dolinara bota, eta hogei bat metroko sakonera izango zuen zuloa tapatzen joan ziren. Euri ura jada ez zen lur azpira sartzen lehen bezala, eta hala, putzua sortzen hasi zen.

Santa barbarako putzua, katalogatua.

Artifizalki sortua izan, ala naturalki izan, dudarik ez dagoena da egun Santa Barbarako putzuak ekosistema eder bat izateko baldintza guztiak betetzen dituela. Hala, ez da harritzekoa EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planean katalogatua egotea. "Barrukaldeko Hezegune Natural"-en barruan dago klasifikaturik, "Klima Atlantiarreko Hezegune"-etan eta zehazki, "kareharriari loturiko putzu"-en taldearen barruan.

0,3 ha-ko azalerarekin eta 0,1 km-ko perimetroarekin, putzuaren inguruan 100 m-ko banda bat hartuz, batez ere nekazaritzako eta abeltzantzarako landazabala da nagusi inguruan. Agerre aldera, putzutik oso metro gutxira, Agerre baserri albotik igarotzen den errepidea dago. Iparraldean, harrobi aldera ematen duen zatian, aldiz, egun hostozabalez osaturiko basoa da nagusi, garai batean harrobitik bota zituzten hondakinak pilatzen diren eremuan bertan. Putzuaren ertzean, hein handi batean, ihia nagusitzen da hezetasun maila handiak mantentzen diren lur zatian. Putzutik aldenduago sasia aurki daiteke putzuaren ipar-mendebaldean. Iparraldean, sahatsek, espezie ezberdinetako zuhaitzek eta zuhaixka hosto erorkorrek osatzen dute landaredia. Bere ezaugarriek, eta katalogazioak, alabaina, ez dute eraginik izan Santa Barbarako "lakuaren" kontserbazioan. Biodibertsiatatearen aldetik eremu interesgarria eta potentzial handikoa izan zitekeena, egun, eremu oso degradatua bihurtu du, nork eta sortu zuen berak: gizakiak.

Ikusten dira oraindik bertan ugaltzen apo arruntiberiarrak (*Bufo spinosus*), edota ikusi dira ere inguruan narrastiak: *Natrix* generoko sugeak lakuaren gainetik igerian, sugegorriak (*Vipera seoanei*) atzealdeko laharretan... martin arrantzaleak ere egin izan du bisita, bai eta koartza hauskarak eta basa ahateek ere. Burruntziek eta sorginorratzek ere aurkitzen dute bertan bizileku bat. Hala, Iñaki Mezquita adituak zerrendatu ditu bertan hainbat espezie. Bost burruntzi eta lau sorginorratz. *Anax imperator, Orthetrum* espezie ezberdinak, *Ischnura graellsii, Pyrrhosoma nymphula...* baina Santa Barbarako putzuaren ezagutza ere ez da oso handia, ikerketarik ez baita egin zer dagoen jakiteko.

Ez ezagutza, ordea, ez da kasu honetan arriskutsuena. Zoritxarrez, badira gauza okerragoak bertan: espezie inbaditzaileak. Gizakiak bertara bota dituen zaborrez gain (gurpilak, motorrak, bizikletak, plastikoak...), askatu ditu ere, besteak beste, etxeetan hain ohikoak diren urrearraina edo karpina (*Caras-*

sius auratus) izeneko laranja koloreko arrain inbaditzaileak, karpak (*Cyprinus carpio*) edota Floridako dortokak (*Trachemys scripta elegans*), igerian zein eguzkia hartzen ikusten ditugunak, baina anfibio espezieen desagerpena ekar dezaketenak putzuan. Jendeak, ordea, horiekin gutxi ez eta ipar Amerikako jatorria duen Blackbass edo *Micropterus salmoides* espezie oso inbaditzailea ere sartu du, esaterako, eta karramarro gorriarekin (*Procambarus clarkii*) batera, osatzen du bertan dauden espezie inbaditzaileen zerrenda zabala.

Hala, ekosistema eder bat izan zitekeena, pixkanaka-pixkanaka suntsitu egin du gizakiak. Egun, jada, hura berreskuratzeko ez dugu beste erremediorik: erabaki erradikal bat da hartu beharrekoa.

Eta orain, zer egin santa barbarako putzuarekin?

Santa Barbarako lakuak ekosistema moduan duen egoera oso eskasa da momentu honetan. Bertan aurkitzen dira jendeak etxean dituen eta bertan uzten dituen hainbat espezie inbaditzaile. Hala, aukera ezberdinak daude, baina helburua hura berreskuratzea bada, errazak gutxi.

Aukera bat dagoen bezala uztea da. Onartzea jada ez dagoela erremediorik, eta pentsatzea jendeak animaliak bertan uzten dituen bitartean, inguruko hezeguneak bakean utziko dituela. Horrek, ordea, arrisku bat ere badu. Egunen batean harrobiaren berreskurapen lanak egingo balira, Santa Barbarako lakuko espezieak bertara mugitzeko arriskua legoke. Bigarren aukera, dagoen bezala utzi, baina dibulgazio lanak egiteko hura erabiltzea da. Eta jendeari azaltzea zein arriskutsua den kanpoko espezieak askatzea, eta zergatik ez, hezkuntza munduan ere erabilera ematea lekuari. Horretarako, informazio panel bat jartzea litzateke aukeretako bat. Aukera honek, ordea, lanketa bat beharko luke ere, eta proiektu bat garatzea, gauzak ondo egin bidean.

Baina, esperantza galdu gabe, bada azken aukera bat ere. Aurretik beste leku batzuetan egin dena, baina Santa Barbarako lakuaren baldintzak ikusita, proiektu handi samarra litzatekeena: putzua hustea, bertako espezie inbaditzaileak ateratzea, eta euri uraren bidez, berriz ere betetzen ikustea. Ziur asko, ekintza horrek ez luke inbaditzaileen %100a kenduko, baina bai ahalbidetuko luke ekosistemari berriz ere hasteko aukera ematea. Proiektu horrek, alabaina, kanpaina zabal batekin egin beharko luke bidea. Kontzientziazio, dibulgazio eta heziketa kanpaina batekin, erakusteko herritarrei zein kalte egin dezakeen bertan espezie kanpotarrak uzteak, eta zein mesede egiten diogun urmaelari eta bertako espezieei ekosistema dagoen moduan utziaz. Dudarik ez da, proiektu handia litzatekeela, baina horrek, era berean, ikusgarritasuna eta balorea emango lioke eremuari herritarren artean, eta zergatik ez, Hernani eredu bihurtu ekosistemen kontserbaziorako pausuak emateko bidean.

Beraz, Santa Barbarako lakuaren etorkizuna hobetzeko aukerak badira oraindik ere. Kontua apustua egitea da. Beraz, zergatik ez saiatu?

Santa Barbarako putzua 2021eko neguan (argazkia: Iñaki Sanz-Azkue).

RUTH MARTIN APEZETXEA GOGOAN

Ruth Martin Apezetxea
(Kulturgintzako langilea)

"Soy una obrera de la cultura", esaten omen zuen Pepa Flores *Marisol*ek, eta esaldi hori ezin hobea da Ruth Martin deskribatzeko. Kulturgintzako hainbat eta hainbat arlotan jarduten ikusi dugu denok, bai zuzeneko emanaldietan (musikaria, aktorea, kantaria...), bai besteei irakasten (antzerki-irakaslea), bai besteen lana aurrera eramaten laguntzen (zuzendari artistikoa). Zenbatetan ibiliko ote zen Hernaniko kaleetan gora eta behera txistuarekin; zenbatetan, hango eta hemengo oholtzetan, antzerki-tailerrak ematen, aktore-lanetan edo kantuan (Ozenki abesbatzan); zenbatetan, Preludioarekin lotutako kontuetan eta beste hainbat ekitalditan. Horrez gain, ateratzen zuen denbora etxean idazten aritzeko, hitzen sukaldean, bere testuak sortzen. Beti umore ona eta bizipoza transmititzen, irribarre goxo eta alai batekin.

Zaila da Ruthek egindako guztia artikulu batean biltzea, eta ausartegia izango litzateke pertsona batek bakarrik ahalegin hori egitea, ekimen askotan ibili baitzen, denetan arrasto iraunkorra utzita. Hori dela eta, hemen, Ruthek landutako zenbait esparruri buruzko zertzelada xume batzuk ematen saiatu gara zenbaiten artean. Ea merezi duen omenaldia egiten asmatzen dugun.

Baina hasi baino lehen, mila esker Ruth Martin, hernaniarron izenean.

RUTH, TXISTULARIA.

2019ko maiatza.

Udaberriko kontzertua dugu igandean, Ruth zuzendari hasi denetik lehenbizikoa, urtarrilean hartu baitzuen Patxiren erreleboa. Kontzertu ibiltaria egitea bururatu zaio: jendea non, hara joango gara gu, txistuak, atrilak, aulkiak eta tramankulu guztiak hartuta, Charlie Rivelen pare. Gaur izan dugu azkeneko entsaioa, eta marrazki batzuekin azaldu zaigu, doinuak girotzeko. Marrazkietako batean, euli bat ageri zen, eta zomorroaren zurrunbiloan pentsatzeko esan digu, *"Eltxo pieza"* izeneko doinua jo bitartean. Beste batean, Tirolekin lotutako zerbait zegoen, *"Austriar bi doinu"* baita kontzertuko beste pieza bat. Eskerrak ez zaiola okurritu norbaiti *"Yodelo, delo, liri, yodelo, delo, liri"* kantatzen hasteko eskatzea. Badu sormena Ruthek, eta burua dantzan darabil beti, zer asmatu.

Azkenean, emanaldi polita atera zaigu. Eguraldi ederra izan dugu, eta hortxe ibili gara kalean gora, kalean behera. Harriduraz begiratu gaituzte kalean, karga-karga eginda gindoazela ikustean. Plazan, Plaza Berri ondoan, Tilosetako eskaileren parean eta Tilosetan bertan egin ditugu geldialdiak, toki bakoitzean bizpahiru pieza jotzeko. Batzuk ikusminez geratu zaizkigu entzun-begira, eta beste batzuek, berriz, berea egiten jarraitu dute, berriketan edo po-

2019ko San Joan eguneko kontzertua (Argazkia: KRONIKA).

teatzen, kasu handirik egin gabe. Ohiko erreakzioak igande eguerdiko aperitiboaren orduan. Gu gure helburua betetzen saiatu gara: ondo pasatzea eta jendeari ondo pasaraztea. Ez da askoz gehiago behar denbora-tarte atsegin bat izateko. Ea zer bururatzen zaion hurrengo emanaldietarako.

Gazte-gaztetatik hasi zen Ruth txistulari. Hasieran, akordeoia eta txistua ikasten ibili zen, biak batera, baina azkenean, txistuarekin jarraitzea erabaki zuen, eta hala jardun zuen bizitza osoan. Beste ezer baino lehenago, txistularia izan zela zioen. Berak azaldu zuen txistuarekiko zuen atxikimendua, Hernaniko Kronikak egindako *"Goizetik Hernaniko Txistulari Bandak zuzendari berria du"* erreportajean (1).

1990eko hamarkadaren hasieran sartu zen Ruth Hernaniko Udal txistulari-bandan, Madrilen ikasten zebilen garaian. 2019an, zuzendari-lanetan hasi zen, Patxi Apezetxearen erreleboa hartuta. Urte horretan, lehenago aipatutako kontzertu ibiltariaz gain, Hernani eta inguruko txistulariok San Joan egunean ematen dugun kontzertuan, kolaborazio berezia egin genuen Musika Eskolako albokari-taldearekin (Haritz Ezeizak sortutako eta moldatutako 3 pieza jo genituen, eta Alan Griffinek sortutako eta Haritzek moldatutako beste doinu bat). Gabonetako kontzertua, berriz, gure taldeko kolaboratzaile eta lagun Juan Jose Arregiren omenez egin genuen, hark sortutako eta Ruthek moldatutako doinuekin, eta Aitor Huiziren (biolina) eta Iker de Las Herasen (pianoa) laguntzarekin (2).

RUTH, ANTZEZLEA ETA ANTZERKI-IRAKASLEA.

2021eko urria.

2010-2011 ikasturtea, Hernaniko institutuan. Batxilergoko 1. mailan, antzerki-eskola genuen astearteetan, bazkalondoan, hiru eta erdietan. Ez da ordutegirik onena, baina esango nuke gogotsu joaten ginela eskola horietara, batere perezarik gabe. Ruth genuen irakasle, eta ikasturte bukaerako emanaldiari begira egin genituen urte osoko saioak. *"Horrelakoak bagara"* izan zen, azkenean, emanaldiaren izenburua. Gutako batzuk zientzietako ikasleak ginen eta DNA izan zen, nolabait, urteko lanaren haria: zergatik gara garen modukoak?

Aurreneko asteetan, nolabaiteko tanteoa egin genuen, elkar ezagutzen aritu ginen ikasleok eta irakaslea. Gero, pixkanaka, neurrira egokitutako pertsonaiak prestatu zituen Ruthek gutako bakoitzarentzat, norberaren ezaugarrien arabera. Bati komisarioarena egitea tokatu zitzaion, noizbait *"Me voy a comer un donuts, porque soy un comisario*

1.-https://kronika.eus/komunitatea/libe-murua-masi-d_549/1570465425726-goizetik-hernaniko-txistulari-bandak-zuzendari-berria-du.

2.- Esteka honetan ikus daiteke kontzertu hori: https://www.youtube.com/watch?v=keUVZnTdDOo. Kontzertu horretan, Ruthek, Aitor Huizik eta Iker de Las Herasek "Eguberri Giroa" doinua jo zuten talde txikian (bideoan, 27:15etik aurrera dago pieza hori).

americano" esan zuelako. Beste bat Eduardo Punset imitatzen ibiltzen zen, eta noski, zientzialari berezi horren antzeko pertsonaia egokitu zitzaion. Beste bat *teatrera* hutsa zen, eta hildako baten papera egin behar izan zuen, purrustaka ibili bazen ere. Eta lotsatienentzat ere, aurkitu zuen haiek eroso egiteko moduko zerbait. *"Al vuelo"* harrapatzen zituen Ruthek horrelako detaileak, eta gidoiak prestatzeko erabiltzen zituen.

Klaseak amaitzeko, musika jartzen zigun, lasaitzeko. Tarteka-marteka guk geuk proposatzen genuen zer entzun, baina berak Ismail Lo-ren *"Tajabone"* abestia jartzen zuen sarritan. Abesti bat gogoko zuenean, behin eta berriz entzutea gustatzen zitzaion.

Hainbat sketch egin genituen ikasturtean, eta horiekin, urte-amaierako emanaldia osatu genuen. Gustura ibili ginen oholtzan, eta bukatzean, lore-sorta bat jasotzera ager zedin lortu genuen. Hori ez omen zen batere erraza.

Segur aski, DNAk markatuko du, neurri handi batean zer eta nolakoak garen. Baina bizitzan bada gugan eragin handia izaten duen jendea, eta bitxia bada ere, ikasturte hartan, antzerki-irakasle batek arrasto iraunkorra utzi zigun Batxilergoko ikasle batzuei.

Zientzietako Batxilergoa egin arren, azkenean, institutuko ikasketak bukatu ondoren, arte eszenikoen bidea hartzea erabaki zuen, eta hortxe joan zen Madrilera, arlo horretako ikasketak egitera. Gerora, bizitzan, esparru horretan jardun zuen gehienbat, irakasle-lanetan batez ere, baina aktore-lanak ere egin zituen, eta zuzendaritza artistikoko lanak ere bai.

Irakasle-lanei dagokienez, haur, gazte eta helduentzako antzerki-tailer ugari eman zituen. Lan-ibilbidean, Zurriola ikastolan hasi zen, txistu-irakasle, eta antzerki-irakasle izan zen Donostiako Ibai ikastolan, Urumea ikastolan eta Hernaniko institutuan, bai eta Biterin emandako tailerretan ere.

Aktore-lanetan ere ibili zen. Esate baterako, *Goenkale* telesailean, pertsonaia gehien antzeztu zituen hernaniarra izan zen, lau pertsonaia egin zituen-eta garai desberdinetan. Lehenengoan, *Alicia* izan zen, lagun bati bere haurraren aita izan zezan eskatzen zion emakumea; bigarrenean, *Maite*, protagonista baten erizaina; hirugarrenean, emagaldu bat, eta azkenekoan, protagonista baten hildako ama gaztea zenean.

Antzerkian, Hernaniko *Txis Pun* taldean aritu zen, herriko lagunekin (Nerea Alzaga, Arantxa Artola, Ainhoa Garcia, Luix Intxauspe, Xabi Rodriguez eta Astigarragako Ramontxo), performanceak han-hemen egiten. Adibidez, *"Mamá quiero ser artista"* izeneko saio bat izan zuten Molotoff Irratian. Horrez gain, Maite Agirreren *Eta Maria, hiru aldiz amapola, Maria* (1997) antzezlanean parte hartu zuen, eta Hernanirekin lotuta, berriz, Kantuz Abesbatzaren ekimenez plazaratutako *Tangoka* ikuskizunean (2002; Javier Zubimendik idatzi zuen argumentua). Arrakasta handiko lana izan zen *Tangoka* herrian, Biteriko aretoa lau egunez betetzea lortu baitzuten. 100 lagun inguruk hartu zuten parte obra horretan, hainbat taldetakoak (Kantuz, Doinu Zale, Ttarla...), gehienak hernaniarrak, eta denak amateurrak, prestatze-lan eskerga egin ondoren (2 entsaio astean, irailetik maiatzera). Lan horretan, *Bittori* izan zen Ruth, pertsonaia nagusietako bat, eta antzezpen-zuzendariaren lanak ere egin zituen.

Tangoka espektakuloko taldea, entsaio batean (argazkia; Marisol Yabel; KRONIKAN argitaratutako argazkia, 2002-05-18)

RUTH, ZUZENDARI ARTISTIKOA.

2004tik 2019ra bitarteko preludioren batean.

Hernaniko Preludioa irailean-urrian jartzen da martxan. Bilerak lehenbizi, egitaraua adostu eta osatzeko. Prestatze-lanak geroago, partiturak parte-hartzaileei helarazteko. Talde bakoitzak bere lana bere kabuz prestatzen du, eta maiatzaren bukaera aldean hasten dira entsaio orokorrak. Hiru egin ohi dira, guztira, Preludioaren aurreko hiru asteetan, Milagrosan, zehaztu eta doitu beharreko gauzak ondo lotzeko. Entsaio horiek hasteko zain gaudela, berriketa eta zalaparta, eta halako batean, txistu sendo bat entzuten da: *Fiuuuu!!!*. Ruth da, eta isilik geratzen garenean, ongi etorria eman, eta egun horretan zer egin behar dugun azaltzen digu. Entsaioa koordinatzen du, pieza batetik bestera ahalik denbora gutxien galtzeko. Azkeneko entsaioan, soinu-probetarako txanden berri ematen digu. *"A, eta beltzez jantzita, ez ahaztu!"*.

Hurrengo bi egunetan, neurri batean, Plaza edo Atsegindegi Ruthen "etxe" bihurtzen dira, hor ibiltzen baita muntatze-lanak ondo doazela zaintzen. Emanaldirako prestatu dituen ikus-entzunezkoak ere probatuko ditu. Emanaldiaren egunean, soinu-probak gainbegiratzen ibiliko da, eta aurkezleekin egongo da, gidoia berrikusten. Bide batez, aurkezle bikainak ditugu Preludioan, eta doinutik doinurako trantsizioak ederki janzten dituzte. Oso ondo moldatzen dira oholtzan, eskarmentu handia dute-eta. Urte asko daramatzate Preludioa aurkezten, bistakoa da gogoko dutela, eta badakite alaitasun hori jendeari transmititzen.

Soinu-probak bukatutakoan, bokata bat jango dugu denok, eta 22:30ean, oholtzara. Amaitzean, *Mendirik Mendi* eta *San Joan Martxa* doinuen ondoren, aurkezleek taldeak, zuzendariak, artista gonbidatuak eta gainerako parte-hartzaileak aurkeztuko dituzte, txalo artean, eta bukaeran, *"... eta zuzendari artistikoa, Ruth Martin!"* esango dute. Arin sartuko da Ruth oholtzan, ezkerreko aldetik, ikusleei agurra egingo die, eta bizkor-bizkor joango da atzerantz, gainerako zuzendarien ondoan jartzeko.

Ederra zen *"Fiuuuu!!!"* horren soinua.

Hernaniko Preludioaren zuzendari artistikoa izan zen Ruth 2004tik aurrera. Hitz potoloak inondik inora. Hori zer ote den galdetu zioten Hernaniko KRONIKAk argitaratutako *"Ruth Martin, Preludioko zuzendari artistikoa" elkarrizketan, eta hauxe erantzun zuen: "Nik ulertzen dudan bezala, zuzendari artistikoak ahal duen neurrian, abestiak jantzi egin behar ditu eta Preludioari lotura edo hari bat eman behar dio. Abesti bakoitza jantzi egin behar du alderdi artistikotik, alegia, argiak, irudia eta abar jarri. Aurkezlearen gidoia ere egin behar du"* (1). Agertokitik kanpo egiten den lana, agertokikoa ondo atera dadin laguntzeko, alegia.

Preludioaz gain, beti prest zegoen horrelako lanetan laguntzeko. Bat aipatzearren, Ttarlakoek taldearen 25. Urteurrena *(Ttarla 25 urte)* ospatzeko antolatutako emanaldian parte hartu zuen (2).

1.- Ikusi elkarrizketa osoa hemen: https://kronika.eus/urumea/1570442779008--81z.

2.-Ttarla 25 urte dokumentalean ematen da ospakizun horren berri (Bira Produkzioak; hemen ikus daiteke: https://www.youtube.com/watch?v=-Tpx0eMgMtxM).

RUTH, IDAZLEA.

2021eko iraila

2013ko iraila. *"Bergarako Idazle Eskolan eman dut izena"*, esan zidan Ruthek igande goiz batean, gure ohiko txistu-kalejira bukatu ondoren. *"Zu UNEDen ibilia zara, erakutsiko al didazu bidea?"*. Nik, baietz, nola ez, eta hurrengo igandean joatekotan geratu ginen, kalejira ostean. Autopista hartu eta Bergarara iristean, ba, aparkatzeko nondik norakoak: *"Saiatu hemen lehenbizi; lekurik ez badago, probatu hor, eta gero, beste kale horretan. Inon ez badago, ba, beste buelta bat, txokoren bat aurkitu arte"*. Aparkatu, San Martin de Agirre plazara hurbildu, eta "Hauxe da lekua". Eraikin monumentala kanpotik, baina oso abegikorra barrutik. Hor daude Idazle Eskola, bai eta UNED eta ikastola bat ere (Aranzadi Ikastola). Zenbait mende darama eraikina irakaskuntza-ikaskuntzako lanetan, eta ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan bertan sartuz gero, zerbait ikasten hasteko gogoa piztuko zaizu segur aski, hango giroa eta jendearen joan-etorriak ikustean. Gero, Bergarako *errelleno* famatuak zer gozo-dendatan hartu behar diren erakutsi, film ospetsuko Etxebestetarren etxapeko irlandarrean bokata bat jan, eta buelta Hernanira. Goiz polita.

Bi urte geroago, argazki bat iritsi zitzaidan telefonora: Ruth beste hiru ikaskiderekin, alai-alai, Idazle Eskolako diploma eskuetan. Handik gutxira argitaratutako testu baten aurkezpenean, hauxe idatzi zuen: *"Hernaniarra. Antzerki nahiz dantza tailerrak zuzentzea du lanbide, eta istorioak asmatzea dibertimentu. Idazle Eskolarainoko bidaien falta sentitzen*

Ruth, Ttarlakoekin, taldearen 25. urteurrena ospatzeko emanaldia prestatzen.

Hitzen sukaldari

Sutan da eltzea, sukaldaria lanean.
Egosten jarri ditu jakiak, gaur okela eta barazkiak.
Atzo arraina, herenegun untxia, eta bihar, biharkoa, ea nolakoa duen gogoa.

Errezeta zaharrak ala berriak? Zergatik aukeratu? Biak.
Nitrogeno hotza ala ikatz beroa? Iragana, oraina eta geroa, guztia da oparoa.

Baditu platertxo, lapiko eta ontziak; baditu sardexka eta burruntzaliak.
Halako jakia halako tresna, eta tresnarik ezean, behatza sartzen du eltzean.

Sutan da eltzea, sukaldaria lanean.
Pintxo, errazio, menu eta ezkontzak.
Otordu luzeak eta motzak; batzuk gozoak, besteak mingotsak.
Tankera, zapore eta makina kolore.
Entzun saltsak nola egiten duen "**plup**".

Sortu ala egokitu? Biak, zergatik hautatu?
Teknika ala sena? Buruak gidatu eta bihotzak lantzen duena.

Baditu ausardia, jakingura eta kopeta, baditu sentimendu eta gogoetak.
Halako gatazkak, halako irtenbideak.
Eta irtenbiderik ezean, beste jakiekin jarraitzen du lanean.
Jatorduaren ostean, izan denaren oroitzapena eta testamentua:
paperean dotore idatzitako menua.

Sutan da eltzea, idazlea lanean.
Egosten ipini ditu hitzak, gaur bi gazteen bizitzak.
Atzo poesia, herenegun antzerkia, eta bihar, biharkoa, ea nolakoa duen gogoa.

Istorio zaharrak ala berriak? Zergatik aukeratu? Biak.
Galdera ala erantzuna? Lehen datorkiona.

Baditu puntu, koma eta parentesiak, baditu hitz eta esaldiak.
Halako ideia halako idazkera. Eta zer esanik ezean, hitzekin jarduten da jolasean.
Baditu bizipenak, bereak eta edonorenak.
Badu bidean oztoporik, bizitzak, hezkuntzak eta bere buruak jarritakorik.
Baina amaitzerakoan, badu beste ezerk eskaintzen ez dion irrika eta bakea;
horrela ulertzen du idaztea.
Aske ote den galderari - **ez** - erantzuten dio berak -**ez bai dut inoiz aski**-.

Hitzak: *Ruth Martin Apezetxea*
Marrazkiak: *Larraitz Mendiable Apezetxea*

hasia da jada". Oroitzapen ederrak zituen bertan emandako denboraz.

Gerora sortutako pertsonaietatik bat nabarmentzekotan, Nati aipatu behar, nahitaez, ordu asko eta asko eman zituen-eta haren istorioa idazten. Noiz edo noiz, *"Zertan dabil Nati?"* galdetzean, *"Hernanin errentan hartzeko etxe bila dabil"* erantzuten zuen, edo *"Plazako etxe honetan jarri da bizitzen"*, edo *"Pixka bat abandonatuta daukat, lanpetuta ibili naiz-eta beste gauza batzuekin"*. Hortxe utzi digu istorio hori, bere lanak bukatuta, eta orain, guk geuk esan nahi diogu, *"Ruth, inprentarako bidean jartzen ari gara Nati; lasai egon, ondo zainduko dugu-eta"*.

Idazle-lanetan ere aritu zen Ruth. Oso gaztetatik gainera: 9 urte zituela, Hernaniko Kimu Alai elkarteak antolatutako idazketa-lehiaketa bat irabazi zuen, 8tik 11 urtera bitartekoen kategorian, euskarazko modalitatean. Gaia: Gabonetako tradizioak. Gerora, hainbat testu prestatuko zituen antzerki-tailerretarako, Preludioko aurkezpenetarako eta abarretarako, eta azken urteotan, buru-belarri zebilen bere testuak sortzen. Eta hor ere, gauzak ahalik ongien egiteko grina. Bergarako Idazle Eskolako graduondokoa egin zuen 2013ko eta 2014ko ikasturteetan, eta hortik aurrera, bi lanekin ibili zen batez ere: *Xx* ipuin-bilduma eta *Sagarrak eta sakelak* eleberria. *Xx* lanean, 13 emakume bildu zituen, bizitzako egoera desberdinetan, bakoitza bere moduan aurrera egiteko ahaleginean. *Sagarrak eta sakelak* eleberrian, berriz, Natividad Elosegi Villabona dugu protagonista, Nati. Eleberri apur bat kostunbrista, apur bat dickensianoa, eta erabat hernaniarra, XX. mendeko lehenbiziko hereneko Hernani baita kontatzen dizkigun gertaeren eszenatoki nagusia. Hernaniko kaleak, erruki-etxea, Tilosetako dantzaldiak, Donostiarako tranbia, Leokako labaderoa... behin eta berriz ageri dira lan horretan. Eleberrirako, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako sorkuntza-beka bat lortu zuen 2019an.

Amaitzeko, hona hemen Bergarako Idazle Eskolako www.idazten.com webgunean Ruthi buruz ageri diren aipamen batzuk:

"[...] Sortzaile garbia zen: antzerkia, dantza, eta musika zerion alde guztietatik. Erritmo hori oso garbi ikusten da gure webgunean argitaratutako lanetan.

Arrazioa eta antzerkia idatzi zuen batez ere. Ipuin-bilduma bat eta nobela bat utzi du argitaratu gabe. Azken honek Hernanin 1914-1931 bitartean Hernanin bizi den Nati du protagonista. 2021. urtean argitaratuko dute bere lagunek.

Beti gogoratuko ditugu bere sormena, indarra eta irudimena".

Beste atal batean:

"Webgune honetan argitaratutako lanez gain hainbat antzerki-tailerretan aritu zen, eta osatuta utzi zituen ipuin-bilduma bat eta nobela bat, Eusko Jaurlaritzako sorkuntza beka jaso zuena.

Nati, umezurztegi bateko neska baten bizipenetan oinarritzen da nobela, eta 1914-1931 bitarteko aldian kokatzen du Hernanin, oso ondo dokumentatu zuen garaian. Bere hainbat lagunek 2021ean argitaratzeko asmoa dute.

Gure eskolakide Ruthek askotan hizpide izaten genuen idazkuntza eta sukaldaritza lotu zituen Hitzen sukaldari lanean. Irudiak Larraitz Mendiable Apezetxeak jarri zituen. Guri, berriro, geure zentzumen guztiez eta gure oroitzapenez dastatzea dagokigu".

ERREFERENTZIAK
Artikuluak eta elkarrizketak

- "Tangoka espektakuluak Biteri bete egingo du gaur estreinaldian", KRONIKA, 2002ko maiatzak 18; 2021eko urrian ikusia (https://kronika.tok-md.com/pdf/maiatzak_18qxd_PC3A1gina_1.pdf).

- "Goizetik Hernaniko Txistulari Bandak zuzendari berria du", KRONIKA, Libe Murua, 2019ko ekainak 24; 2021eko urriaren 2an ikusia (https://kronika.eus/komunitatea/libe-murua-masid_549/1570465425726-goizetik-hernaniko-txistulari-bandak-zuzendari-berria-du).

- "Agur, Goenkale!", KRONIKA, 2015eko martxoak 21; 2021eko urriaren 2an ikusia (https://kronika.eus/hernani/1570448757993-agur-goenkale)

- "Ruth Martin, Preludioko zuzendari artistikoa", KRONIKA, 2009ko ekainak 13; 2021eko urriaren 2an ikusia (https://kronika.eus/urumea/1570442779008--81z).

- "Hernaniar sena oinarri, 25 urtez", Miguel Mari Lizartza, Joxe Ramon Berrondo eta Ruth Martinekin egindako erreportajea, Preludioaren 25. urteurrena zela eta; KRONIKA, 2018ko ekainak 16; 2021eko urriaren 16an ikusia (https://kronika.eus/hernani/1570461653957-hernaniar-sena-oinarri-25-urtez)

- Ttarla 25 urte dokumentala (2018). Bira Produkzioak (https://www.youtube.com/watch?v=Tpx0eMgMtxM, 2021eko urriaren 17an ikusia).

- San Joan jaietako XXV. iragarpen kontzertua, 2018ko Preludioa (https://www.youtube.com/watch?v=H5PtUwY9f3c, Bira Produkzioak grabatua; 2021eko urriaren 17an ikusia).

Antzezlanak

- Eta Maria, hiru aldiz amapola, Maria antzezlanaren testua. Maite Agirre, 1997. (http://mikelmartinez.eus/wp-content/uploads/2018/02/maria.pdf)

Sorkuntzako idazle-lanak:

- Sagarrak eta sakelak eleberria (argitaratzeko bidean). 2019an Eusko Jaurlaritzaren sorkuntza-beka jasotako lana.

- Xx ipuin-bilduma (argitaratzeko bidean).

- "Hitzen sukaldari", www.idazten.com webgunean argitaratua, 2014ko apirilak 23; 2021eko urriaren 2an ikusia (http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/solas-eta-jolas/1878-martin-apezetxea-ruth-hitzen-sukaldari-solas-eta-jolas).

- "Esazu hitz bat eta sendatuko naiz", www.idazten.com webgunean argitaratua, 2014ko abenduak 31; 2021eko urriaren 2an ikusia (http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/antzerkia/1956-martin-apezetxea-ruth-esazu-hitz-bat-eta-sendatuko-naiz).

- "Berbenetan, dantza", Zazpika aldizkarian argitaratua (816 zk. 22.-23. or., 2014ko irailak 14: https://es.calameo.com/read/00269896965f90413131f), bai eta www.idazten.com webgunean ere, 2014ko irailaren 19an; 2021 urriaren 2an ikusia (http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/narrazioak-65333/1951-martin-apezetxea-ruth-berbenetan-dantza-narrazioak).

- "Eltzekoari bueltaka", Zazpika aldizkarian argitaratua (767 zk. 22.-23. or., 2013ko urriak 6: https://es.calameo.com/read/002698969874d18c9dcad), bai eta www.idazten.com webgunean ere, 2014ko uztailaren 10ean; 2021 urriaren 2an ikusia (http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/narrazioak-65333/1919-martin-apezetxea-ruth-eltzekoari-bueltaka-narrazioak).

- "Camilo eta taxonomistak", Administrazioa euskaraz aldizkarian argitaratua (88 zk. 29-30. or., 2015).

KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTAK ATEAK ZABALDU DITU!

2021eko irailaren 11ean irekiera ekitaldiarekin batera Kulturarteko Plaza Feministak ateak zabaldu zituen. Herritarrak beso zabalik hartzeko prest zegoen espazioa, baina, egun hura ibilbide luze eta oparo baten hasiera besterik ez zen izan.

Egun horretara iritsi aurreko bidea ez da edonolokoa izan. Askotariko prozesu eta pausuak eman ditugu gaur egun arte. Izan ere, gure herrietan eta hirietan horrelako topaguneak izateko aldarrikapenari erreparatzen badiogu, ezinbestean denboran atzera egin beharra dugu. Mugimendu Feministak zenbait aldarrikapen eta eskaera egin izan ditu historian zehar, eta horietako bat izan da topagune propioa izatearena hausnartzeko, formatzeko, artikulatzeko eta saretzeko. Hemen inguruan zabaldutako horrelako lehen bi espazioak Arrasateko Emakumeen Txokoa eta Ermuko Emakumeen Topalekua izan ziren, 2003an. Geroztik, beste hainbat herri eta hirietan sortu dira, besteak beste, Donostian, Basaurin eta Azpeitian.

Hernanin, 2001. urteko apirilean *Berdintasun Arloa* sortu eta gutxira, *Berdintasun Kontseilua* osatu zen.

Geroztik, Berdintasun Kontseiluak dinamika eta eskaera andana egin ditu eta bultzada handia eman dio feminismoari herrian. Bide horretan, *Plaza Feministaren* mugarri garrantzitsua izan zen. 2012. urtean Udaleko Berdintasun Arloa espazio berrira lekualdatu zen: Plaza Feministara. 2013ko martxoan irekiera ofiziala egin zitzaion. Nahiz eta zerbitzu zabaleko eraikin propioa ez izan, bazen erreferentziazko gunea eta eragile feministak biltzeko lekua. Bere funtzioa betetzen zuen arren, txiki geratu zen Plaza. Beraz, Plaza Feministako esperientzia hark indartu egin zuen proiektu zabalago baten beharra eta aldarrikapena.

2015. urtean Udal gobernuak Emakume Etxea egiteko konpromisoa hartu zuen eta espazio berria egokitu zitzaion: Florida auzoa 28an.

Etxe horren ezaugarriak nolakoak izango ziren pentsatzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko 2016ean partaidetza prozesua abiatu zuten Berdintasun Arloak eta Berdintasun Kontseiluak. Parte hartzea zabala izan zen eta lan-talde eragilea osatzeaz gain, lan-saio irekiak egin ziren proiektuaz norberak zituen ametsak partekatzeko eta espazioaren identitateaz hitz egiteko. Prozesuak elkar ezagutzeko, sareak egiteko eta elkarrekin pentsatzeko aukera paregabea eman zigun eta ilusioa eta gogoa piztu zituen. Tartean, jardunaldi batzuk ere egin ziren.

Bost lan saio zabal eta bilera eta hizketaldi luzeen ondoren, eraikinaren berriztatze eta moldaketa lanak hasi ziren. Hainbat faktore tarteko uste baino luzeagoak izan ziren lan hauek.

Urte batzuen ondoren eta eraikina erabat eraldatuta, irailaren 11ean irekiera festa egin zen eta Kulturarteko Plaza Feministak ateak zabaldu zizkien herritarrei. Geroztik egun osoan zabalik dago eta askotariko zerbitzu, ekimen eta baliabideak topa ditzakegu bertan. Koordinatzaileek egun osoz ematen dute arreta eta informazioa.

Kulturarteko Plaza Feministaren definitzeko hainbat saio eta jardunaldi egin ziren.

Kulturarteko Plaza Feministaren feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako espazioa da. Hernaniren eta munduaren eraldaketan alea jartzera dator eta hausnarketarako, formakuntzarako eta ekintzetarako erreferentzia gunea izan nahi du. Emakumeen* ahalduntze prozesuak sustatzeaz gain, kultura anitzetako pertsonen topagunea da. Gainera, feminismoan aritzen diren eta arrazakeriaren aurka lanean ari diren herri-eragileentzako tokia da; horien arteko sarea eta aliantzak egiteko. Bestalde, indarkeria matxistaren aurka lan egiteko tokia izan nahi du. Emakumeak* dira protagonista nagusiak, halaber, arreta edo informazioa nahi duen herritar ororentzat ateak zabalik daude.

